


BETERRIKO ALDIZKARIA

AIURRI

1994ko ekaina. 3. zenbakia. Doan banatzen da.



Intsumisoak:
desobedientzia ejertzitoari



Egilea: Manu Mujika
BOSTEHUN ESKAILERA

2. AGENDA

4. **INKESTA:** Eta zu, joango al zinateke nudisten hondartza batera?

6 BERRIAK LABUR

8. **ZIKULU SALTSA:** Billabonako Seaska haur-eskola auzitan.

11. HERRIZ HERRI

17. **ERREPORTAIA:** Soldadutzari intsumisioa, desobedientzia estatuari.

20. **ELKARRIZKETA:** Andoain. Axeri dantzak elementu erritualak ditu.

22. **BASERRIAN:** Bi baserritar gazte.

24. **KULTURA:** Goiko Errotan burua azkar, mingaina bizi.

26. **KIROLA:** Nazioarteko V. zikloturismo klasika.

28. ZAHARRAK BERRI.ERRETRATU ZAHARRA.

Soldadutzatik ihesean.

30. **MUSIKA:** Euskal Herriko musikaren adaskak zorrozten.

32. BEGI ARGIA

33. HEMEROTEKA

34. HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN

35. MERKATU TXIKIA

36. ZURE HIZPIDEA

37. **AIURRITARRAK:** Euskal mapa berria. Josu Perales.

38. **ESKOLA ARTEKOA:** Asteasuko Pello Errota ikastetxea.

40. PASADIZOAK



OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Helbidea:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Erredakzio Batzordea:** Eloi Egibar, Manu Etxezortu, Jone Larrañaga, Jon Unanue. **Erredakzioa:** Maider Barandiaran, Txomin Etxeberria, Amaia Etxezarreta, Agosti Garmendia, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiartzabal, Agurtzane Ormaetxea, Josu Perales, Idoia San Sebastian. **Laguntzaileak:** Gorka Alijostes, Joxe Eizmendi, Xabier Lasa, Mikel Maiz, **Argazkiak:** Manu Mujika, Karmelo Marzol. **Komikia:** Iñaki Gonzalo. **Publizitate arduraduna:** Xabier Jauregi. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Izarberri, Usurbil. **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

Agenda

IKUSENTZUNEZKOAK

BILLABONA:

- **Uztailak 6:** "Artzaiak: azken nomadak". Egilea: Gema Arrugaeta. Kultur Etxean, 7.00etan.

- **Uztailak 8:** "Sol y bruma (Mali)". Egilea: Luis González. Kultur Etxea 7.00etan.

- **Uztailak 15:** Filma Erreboteko Plazan gaueko 11.00etan.

- **Uztailak 22:** Haurrentzako zinea goizeko 11.00etan Gurea aretoan 12.30etan musika sintetizadore kontzertua "Slavko Turudic" pianojolearen eskutik.

MUSIKA

ANDOAIN:

- **Uztailak 23:** Donostiako Jazaldiko taldea, Holmes Brothers, Goiko Plazan 23.00etan.

BILLABONA:

- **Uztailak 23:** EASO abesbatzaren emanaldia GUREA zine-aretoan gaueko 10.30etan.

ERAKUSKETAK

ANDOAIN:

- **Uztailak 1-8:** Argazkigintza Tailerreko partaideen lanak Kultur Etxean.

IBILALDIAK

ASTEASU:

- **Uztailak 23-24:** Asteasuko mendizale taldeak bere 6. eta 7. etapak egingo ditu Gipuzkoako itzulian. Arlaban-Urbieta-Otzaurre ibilaldia egingo dute. Gaua Urbian pasatuko dute. Irteera ostiralean izango da goizeko zazpitan Herriko Plazatik.

- **Uztailak 30:** Urteroko ibilaldia Arantzazura. Goizeko 6etan irtengo dira Herriko Plazatik.

LEHIAKETAK

ANDOAIN:

- **IV Argazki Lehiaketa Lorenzo Hurtadoren oroimenz KARRIKA azuoa:** Gaia: Andoiango txokoak. Lanak uztailearen 9rako aurkeztu behar dira Fotocolor dendan. Argazkiak txuri-belitzak edo koloretan izan daitezke. Egile bakoitzak gehienez bi argazki aurkeztu ahal izango ditu. Uztailearen 17an erakusketak bat egingo da ludotekan goizeko 10etatik 12etara.

BESTE

BILLABONA:

- **Ekainak 24-25: Drogomenpekotasunaren aurkako nazioarteko eguna:** APURKA taldeak antolatutako eskulanen erakusketa, artisautza, judo-emanaldia, haur-josak, musika...

ZIZURKIL:

- **Ekainak 26: Kurtso bukaerako festa Pedro Maria Otaño herri eskolak antolatuta.** Goizean volleyball, futbol eta saski-baloi partiduak. Umeentzat jolasak ondoren. 12.30etan Bukalai dantza taldearen saioa. 14.00 bazkaria. 16.00 eskolako ikasleen emanaldiak eta mus txapelketa. 17.30etan dantzaldia eta gimkana. 19.30etan Aiuma taldearen kontzertua. Egun osoan zehar erakusketak eskolako gimnasioan.

JAIK

ANDOAIN:

SAN JUANAK

- **Ekainak 25:** Haurren arteko zesta punta eta eskupelota txapelketaren finalak. I. Open Euskadi jaitsiera Belkoaindik Comaq-era.

- **Ekainak 26:** Haurren danborrada eta rock kontzertua.

KARRIKAKO JAIK

- **Uztailak 15:** Txupinazoa, txokolatada eta Almen taldearen emanaldia.

- **Uztailak 16:** Haur-jolasak, txaranga, tute eta mus txapelketak eta Inguima taldearekin dantzaldia.

- **Uztailak 17:** Herri dantzak eta Martin eta bere taldearen emanaldia.

ASTEASU:

SAN PEDROAK

- **Ekainak 28:** Txirrindulari proba eta Maixa eta Ixiarren trikiti-saioa.

- **Ekainak 29:** Elizmendiko jaiak: Biatlon herrikoia eta EGAN taldearekin dantzaldia.

- **Ekainak 30:** Zaharren eguna. Dantzaldia Zabale anaiekin.

- **Uztailak 1:** Kuadrilen eguna. Bertsolari jaialdia: Peñagarikano, Mendizabal, Irazu eta Sorozabal.

SANTA MARINA JAIK

- **Uztailak 16:** Zikiro afaria eta erromeria.

- **Uztailak 17:** IX. Andazarrate-raino igoera eta herri kirolak.

- **Uztailak 18:** Santa Marina eguna. Zeberio eta Mañukorta bertsolariak.

BILLABONA:

SANTIOAK

- **Uztailak 24:** Eskuzko pelota partiduak haur eta gaztetxoentzat. Dantzari txikien emanaldia. Suzirien jaurtiketa. Erraldoi eta buruhandiak. Txupinazoa. Kanpai-errepika. Afari herrikoia frontoian. Danborrada gauean. Nekaezinak txaranga goizaldean.

- **Uztailak 25:** Sokamuturra Larrea auzoan. Kross herrikoia. Zumaiako musika-bandaren kontzertua. Soka dantza plazan. Txistu kontzertua plazan. alardea.

- **Uztailak 26:** Sokamuturra. Gazteen errebote partidua. Erraldoi eta buruhandien irteera. Konpartsa Incansables txarangarekin.

- **Uztailak 27:** Haurrentzako jaialdia Sebastopoleko titiriteroekin. Mus txapelketa herrikoia. Joko-Garbi Iparraldeko taldeekin. Koadrilen arteko futbol txapelketaren finalak. Kale-antzerkia Markeliñe taldearekin.

- **Uztailak 28:** Jubilatuen bazkaria Amasan. Makailo lehiaketa eta sagardo dastaketa.

MUSUTRUK

AIURRI

BETERRIKO ALDIZKARIA

DEBALDE

hutsean

dohainik

urririk

3. zenbakitik aurrera etxean **DOHAINIK** jaso nahi baduzu, egin zaitez harpide!, etxeraino eramango dizugu eta hileroko **AIURRI** aldizkaria, xentimorik ordaindu gabe.

☛ Izen-emateko txartela ondoko liburudendetan utz dezakezu:

● **ADUNA**

HERRIKO Taberna

● **ANDOAIN**

IKAS-JOLAS Liburudenda
MINIKOST Liburudenda
STOP Liburudenda
ERNAITZA Liburudenda

● **ASTEASU**

OGI ZURI Okindegia
PATXINE Jatetxea

● **BILLABONA**

ROTETA Denda
OGI GOXO Okindegia

● **LARRAUL**

HERRIKO Ostatua

● **ZIZURKIL**

ELBARRENAko Kultur Etxean
(16.00-20.00)
IRIARTE Etxeko Tabernan

☛ Izena telefonoz eman nahi izanez gero, dei ezazu **30 07 32** zenbakira.

AIURRI ALDIZKARIA ETXEAN JASO NAHI DUT
HILERO DOHAINIK

Izen-deiturak -----

Helbidea -----

Herria -----

Eta zu, joango al zinateke

Uda iritsi da eta asko dira dagoeneko lehenengo eguzki-printzak ikusita, hezurak berotzen jarri dituztenak. Batzuek mendi aldera jotzen dute, beste batzuek hondartzara, urrutira joan gabe ere izterrak eta paparra bistan jarrita, etxe-atarian gelditzen direnak ere ez dira gutxi. Goiztiarrenak hondartzan behin baino gehiagotan etzan dira honez gero ahoz gora, ahoz behera edo saiheska, txuri-unerik utzi gabe beztu nahiean. Bainu-jantziaren arrastorik eduki nahi ez izateagatik edota eguzkiaz bete-bete gozatu nahi izateagatik gero eta gehiago dira hondartzetan larrugorritan ibiltzen direnak. Guk ere jakin nahi izan dugu, bada, gure bizilagunak arropak kentzen hasi eta zenbateraino dauden biluzteko prest.



Roberto Durán, langabetua. Billabona.

Ez, ez nintzeteke joango (esaten du bi aldiz pentsatu gabe), lotsa ematen dit. Ongi iruditzen zait, hala ere, nudisten hondartzak egotea. Ez lukete zertan bereiztuta egon behar, nudistak batetik, eta bainu-jantzia daramagunok bestetik. Nik nahi dudana bezala jarriko naiz eta besteek ere egin dezatela nahi dutena. Ez zait azal lodia edukitzea iruditzen ni bainu-jantziarekin nagoen bitartean besteak larrugorritan ibiltzea.



Virginia Díez, ikaslea. Andoain.

Ez nintzeteke joango, asko *mozten* naiz horrelako gauzekin, lehenengoan aritu ginen nire mutil-laguna eta biok horri buruz hitz egiten eta, ez, (mutila ez dirudi iritzi berekoa denik). Jakingo banu ezagunekin elkartu behar ez nuela, agian, baina ezagunen batekin elkartuko banintz hil egingo nintzateke. Ez zait gaizki iruditzen nudisten hondartzak egotea. Neri, hala ere, ez zait inporta nere ondoan jendea biluzik egotea.



Isabel Lorca, botikaria. Asteasu.

Ziur aski ez nintzeteke joango, ez dut uste. Lotsa ez... ez daukat horretarako gogorik. Nudisten hondartzak egotea ongi iruditzen zait, gustatzen zaionarentzat, primeran! Hala ere, egokia iruditzen zait orain bezala bereiztuta egotea, batetik, larugorritan ibiltzen direnak eta bestetik, bainu-jantziarekin. Berez, neri ez zait inporta nere aurrean jendea biluzik egotea, baina suposatzen dut beste askori ez liokeela grazia handirik egingo, hortaz, hobe gauden bezala jarraitzea.



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloa
Telefonoa 30 01 69 - ANDOAIN

Aduna Altzariak

Altzarien erakusketa,
fabrikazioa eta salmenta



CIRCULO
MOBILIARIO

Elbarrena auzoa, z/g
☎ 69 15 62 - 66 - Faxe 69 34 66
ADUNA

nudisten hondartza batera?


Idoia Otegi, etxeoandrea. Aduna.

Ba... ez, ez nintzateke joango, ez dut uste (dio zalantza-izpi batez), lotsa dexente ematen dit besteen aurrean larrugorritan jartzea. Dena den, nudisten hondartzak ondo daude joan nahi dutenentzat. Neri berdin zait besteak nere ondoan biluzik ibiltzea, baina, beharbada, besteek..., besteek ez dakit nik zer pentsatzen duten.



Eneko Alberdi, Udal administraria. Larraul.

Honi, behinik behin, galdera *kuriosoa* iruditu zaio: Printzipioz ez nuke arazorik joateko, nahiz eta aitortu behar hasieran, ohitu arte, lotsa pixka bat emango lidakeela. Gauza naturala iruditzen zait hondartzan biluzik ibiltzea. Bainu-jantzia jazen ohitu garen bezala, orain kontrako ohitura hartu behar. Hondartza nudistak eta besteak ez lukete zertan bereiztuta egon behar, baina gure hezkuntza dela eta, estalita ibiltzetik denak larru gorritan jartzen hastera salto handi samarra dago, beraz normala da orain bereiztuta egon behar izatea, *desmordre* handia litzateke. Baina berez gauza normala beharko luke izan.



Inma Alonso, tabernaria. Zizurkil.

Bai, joango nintzateke, baina hemendik kanpo. Lotsa ez dit ematen bai-na... Ongi iruditzen zait nudisten hondartzak egotea. Bakoitzak jakin beharko du zer egiten duen. Bainu-jantziarekin ibiltzen direnei nudistak gustatzen ez zaizkien bezala, azken hauek ere bainu-jantzia jazen dutenak ez dituztela gogoko pentsa daiteke, tontakeria da bereiztuta egon behar izatea. Bakoitzak egin dezala nahi duena.



5



**Dietetika
eta Belardenda**


ZAINBERRi

Naturopataren kontsulta Akupuntura
Iridologia Ile tratamenduak
Masajea Pisu terapiak
Estetika

Pablo Gorosabel, 6 - ☎ 65 21 86 **TOLOSA**
Kale Nagusia, 7 - ☎ 59 13 99 **ANDOAIN**



LEITZ
MENDIKO BIZIKLETAK
Ankoras, 4 - ☎ 30 04 69 - ANDOAIN



**ZIENTZIEN
AKADEMIA 51**

Matematika, fisika eta kimika
MAILA GUZTIAK
Goizez eta arratsaldez
Kale Nagusia, 51 - ☎ 59 33 79 ANDOAIN

AMASA-BILLABONA

● Migel Zalakain billabonatarren heriotzaren inguruko epaiketa




Migel Zalakain preso billabonatar zenaren heriotzaren inguruko epaiketa bukatu eta gero bere senideak sententziaren zain daude. Amnistiaren Aldeko Batzordeak prentsaurrean adierazi zuenez heriotzaren inguruan dauden zenbait "gertaera ilun" argitzea eta erantzule zuzenak zehin zeharkakoak salatzea eta zigortzea du helburutzat epaiketak. Zalakainen senideak izan dira salaketa partikular gisa aurkeztu direnak, akusatuen aulkian Carabancheko medikua, Alcalá-Meco-koa eta Martuteneko biak eseri dira. Senideek sei urteko gartzela-zigorra eta guztien artean 30 milioitako indemnizazioa eskatzen dute, fiskalak berriz, urtebeteko zigorra eta 10 milioitako ordaina. Amnistiaren Aldeko Batzordeak herriko erakunde eta taldeen artean dei zabala egin zuen bere salaketak ahalik eta oihartzun zabalena izan zezan; SENIDEAK erakunde, LAB sindikatua, KAS erakunde, HB alderdia, Gaztetxea eta Fleming ikastetxea izan ziren dei horri erantzun ziotenak.

Migel Zalakain 1990eko azaroaren 30ean hil zen Donostiako Ospitale probintzian Martuteneko zuzendariaren esanetan. "Anbulantziako erizainak berak esana da, ambulanzia Migelen bila Martutenera iritsi zenean hilda zegoela dagoeneko" diote senideek. "Heriotza naturala izan zela sinestarazi nahi digute" dio Iñaki bere semeak, "gu saiatuko gara erakusten bizi izan zen baldintzetan bizi izanda, hiltzea naturala dela: uztailaren 20ean Ourenseko espetxean zegoela eman zion bihotzekoak, AIUra (Arreta Intentsiboen Unitatea) eraman zuten" kontatzen du "Alcalara eraman zuten handik bi egunetara eta bertan ez zitzaion inongo osabiderik eman. Irailaren 11n infarto-amago bat bat izan zuen, ez zioten kasurik egin eta horrexegatik, gose-greba bati ekin zion. Urriaren 10ean Martutenera eraman, ospitaleko bisita atzeratu, eta bien bitartean ezin medikuk aztertu gabe, hil egin zen". Amnistiaren Aldeko Batzordeak prentsaurrean gogoratu zuen espetxean hil den bederatzigarren euskal preso politikoa izan dela Migel Zalakain billabonatarra.

● Euskal bizikleta

Jon den ostegunean jende asko bildu zen Sondikan hasi eta Billabonan bukatu zen Euskal Bizikletaren bigarren etaparen amaiera ikusteko. Espero zen bezala helmugako esprintak erakarri zuen jende gehien, berrehun kilometrotako ibilbideak ez baitzuen bestela aparteko berezitasunik, bigarren mailako Barrerilla mendatea izan ezik. Askok zuten Polti talde italiarreko Abdoujaparov favoritotzat esprintean, baina azkenean Feghini italiarra izan zen garaile. Italiarrantzat profesionaletan lortutako lehen garaipena izan zen hau. Etapa lasaia izan zen Billabonakoa, ezusterik gabekoa, ihesaldi ugari izan zen arren, tropela batera iritsi zen helmugara. Ostiralean txirrindulariak iparraldera abiatu ziren ibilbidea Donibane Lohitzunen amaitu asmoz. Aurten-go Euskal Bizikletan hamazazpi talde izan dira. Giroan parte hartu zuten gizonak favoritotzat jotzen zirelarik. Guztira 849 kilometro bete zituzten txirrindulariek.



ASTEASU

● Mugitu dira berriro lurrak

Lur azpiko uren mugimenduaren eraginez beste behin hondoratu da lurra Elizmendingin, Añorga inguruan. Oraingo honetan metro bateko hondorapena izan da. Añorga baserriarekin gertatu zen bezala, urak mugitu egin dira, hutsunea egin du lur azpian eta gainak ezin izan dio eutsi. INGEMISAko teknikoez adierazi digutenez meategietan egiten ari diren ur-ponpaketak ez du iztripua eragin, gainera, orain arteko hondoraketak, baita garai bateko Añorga baserriarena ere, ur-bide berean gertatu direla ikusita, arrazoa bera izan dela pentsa daiteke. Honez gain, egoera honi nolabaiteko irtenbidea emateko bi bide daudela adierazi dute teknikoez: orain arte bezala bete-lana egiten jarraitu, horrek ez luke arazoa behin-betiko konponduko, edo urari eusteko erretan handi bat egin eta luzarorako gaiaz ahaztu. Udalak oraingoz ez du erabakirik hartu.



ANDOAIN

● Kale giroko hezlea

Udalak, herriko ikastetxe eta beste erakunde batzuekin batera ongizate egitasmo berezi bat eraman nahi du aurrera. Honako hau herrian eta oro har gizartean adaptazio-arazoak dauzkaten edo edukitzeko arriskuan dauden gazteei dago zuzenduta. Teknikoek diotenez, besteak beste, horiek izaten dira gazte horien ezaugarrietako batzuk: eskolan huts egiten dute, euren familietan arazo ekonomiko larriak izaten dira eta, normalean, kalean ematen dute ia egun osoa, bere *bizitokia* bihurtzen dutelarik. Hain zuzen ere, kale giroko hezlearen funtzioa gazte hauek kalean egiten duten bizitzan eragitea eta gizartean integratzeko bideak crakustea litzateke. Honez gain Udaleko zerbitzu sozial sailetik gazteak bere etxean izan ditzakeen arazoei aurre egiten saiatuko dira, hala nola, ikastetxeen partehartzea ere izango da gazteari jarraipen zuzena egiteko. Kaleko hazle horren lehenengo lanetako bat aipaturiko gazte andoaindar horiek zeintzuk diren jakitea izango da, hala nola, euren ingurua eta lagunartea ezagutzea. Ondoren gazte horiekin harreman zuzena izango du aipaturiko helburuetan gertutik lagundu ahal izateko. Garrantzi handia eman zaio gazte bakoitzari egingo zaion banakako jarraipenari, kalean, eskolan eta etxean.

● Bernardo Atxaga Andoainen

Bernardo Atxaga idazlea Andoainera hurbildu zen bera eta bere lanaren berri zuzenean eman asmoz. Kultur Etxean ehun eta hogeit hamar lagun inguru bildu ziren eta baita euren galdera, kezka eta zalantzekin parte hartu ere. Eginiko itzulpenei buruzko galderak eta plagioari buruzko bere lanaz galdetu zitzaion, besteak beste. Atxagak bere azken liburuz hitz egin zuen, izenburuari buruzko argibideak eman zituen, eta ezagun duen hitz-jario oparoaz bertaratu ziren guztiei une atsegina pasarazi zien burutazioak, gogoetak, pasadizuak, pentsamenduak eta txisteak tartekatuz.



● Iñaki Gozalo Erro andoaindarra, aldizkari honetako komikigilea, izan da San Juan Jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren irabazlea. Beñat Arregi Garmendia izan da bigarren saritua 17 urte gorakoen mailan. 12-16 urtekoen mailan hiru saridun izan dira: Juanma Macias, Mikel Moreno eta Xabier Maia.

interes-tasa murrizten du

Hipoteka Berriak

eta askoz gehiago

Euskadiko Kutxaren Hipoteka Berrira aldatzea orain errentagarriagoa da.

Euskadiko Kutxak Hipoteka Berriaren interes-tasa are eta gehiago jaisten duelako.

Hipoteka Berriarekin zeuk aukeratzen duzulako zure beharretara ondoen egokitzen den 7 modalitateetako bat. Interes-tasa finko eta aldakorak, %7,25 nominaletik abiatuta.

Ondorengo beherakadez onuratzearaz gain, modalitateetako batekin, igoerak mugatuko dituzulako.

Eta gainera, hipoteka aldatzeko gastuak nabarmen murriztu direlako.

Hipoteka Berria

-ERNIO-BEHEA-

Seaska haur-eskola auzitan

Gurasoak haserre agertu dira Zizurkil eta Asteasuko Udalen erabakiak direla eta

LOGSE izeneko legeak arautzen du gaur egun hezkuntz sistema gure lurraldean. Berez 0 urtetik hasi eta 16 bitarteko haur eta gazteen eskolaketa derrigortzea eta hiritar orori ziurtatzea da bere helburua. Oraindik ordea, derrigortasuna 6-14 urte bitartean dago ezarrita, doantasuna berriz, 3-16era ematen da, beti ere ikastetxe bakoitzak eskaintzen duen zerbitzuaren arabera. Haur-hezkuntza deritzon sailak 0-6 bitarteko haurren hezkuntz-proiektua arautzen du. Sail hau bi ataletan bereizten da: 0-3 bitartekoari haur-eskola esaten zaio eta 3-6 bitartekoari eskola aurrea. Legeak teoriarik guztia arautu arren, haur-eskolen egi-tasmoa ez du batera garatu; lege aldetik hutsunerik ez badago ere, praktikan haur-eskolek ez dute orain arte behintzat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailetik dirulaguntzarik jaso. Bien bitartean, bi eratako haur-eskolak daude gaur egun indarrean, pribatuak eta publikoak. Zenbaiti publikotasun izaera eman dio Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoa osoko haur-eskolak biltzen dituen koordinadora batean daude bilduta hauek, eta beraien helburua, hain zuzen ere, publikotasuna eta doantasuna praktikan lortzea da. Horrelako haur-eskolak, normalean, Udaletako dirulaguntzak izan ohi dituzte, kasu Billabonako Seaska haur-eskola. Seaskak dirulaguntza jasotzeko proposamenak ordea, ez du Billabona, Zizurkil eta Asteasun harrera bera izan: Biillabonan onartu zaie proposatutakoa, Zizurkilen murriztapenak izan dituzte eta Asteasun oso bestelako ikuspegia eta erabakia azaldu dute.

Duela 18 urte sortu zen Seaska guraso batzuen ekimenez "emakumea kanpoan lanean hasi zenean" dio Edurne hezitzaileak. Hasiera batean egoera honi irtenbideren bat eman nahiean ireki zen, baina urteak aurrera egin ahala haurtzaindegia haur-eskola bilakatu da, eta zaintzaileak hezitzaile, alegia, hezkuntz proiektu bat du egun oinarritzat. Gurasoen kuotak eta Udal batzuen dirulaguntzak dira bere diru-iturriak. Diputazioarena da lokala, eta bertatik diruren bat ere jasotzen dute. Hezkuntzak aurten eman die lehenengo aldiz 1.500.000 pezeta. Ez dute zalantzarik agertzen publikoak direla esatean, are gehiago municipalizat jotzen dute bere burua, hain zuzen ere Guraso Elkarteak Billabonako Udalarekin dauka hitzarmena eginda. Bestalde, euren esanetan bailarako haur-eskola da Seaska, "Ernio-Behea bailarako zerbitzua". Billabonako 34 haur daude bertan, Zizurkilgo 3, Asteasuko 2 eta Ernialdeko 1. Sei hezitzailek daukate beren ardura.



Haurrak kanpoan jolasten

Hezkuntz proiektua

"Helburuak: 1- Haurren heziketa; taldeko arauak, ohiturak eta baloreak har ditzaten; lagunarteko harremanak egin ditzaten; psikomotritzitatea eta hizkuntza landu ditzaten. 2- Gurasoek etxetik kanpo lan egin ahal izatea erraztea. 3- Gure artean daudenean euskaraz bizitzea", era honetan definitzen dituzte euren helburuak, "hasieran, haurrari lurra, jostailuak..., eskaintzen zaizkio, mundua deskubri dezan, bestalde jatorduak, oheratzeko orduak finkatzen hasten dira. Ondoren gurekin eta beste haurrekin harremanak ezarri dituztenean ipuinak ikusten eta kontatzen hasten dira, eta bi urte bete dituztenerako ohiturak menperatzen dituzte eta euskara-maila ona dute". Gurasoek erabaki ohi dute bere seme-alabak eskolan egongo diren denbora, Seaskan batz bestei ordu ematen dituzte haurrek.



Eduardo Laborde
Billabonako alkatea

Billabonako Udalak, hasierako eztabaidak gainditu ondoren, beti pentsatu izan du haurtzaindegia zena eta egungo haur-eskola bultzatu egin behar zituela, batetik, gurasoei kanpoan lan egitea ahalbidetzen dielako eta bestetik, haur-ekolak hezkuntz proiektu bati erantzuten dielako. Betidanik iruditu zaio Ernio-Beheko zerbitzua izan daitekeela, baldin eta inguruko herrietako haurrak joaten badira behintzat, izan ere, herri txikiak nekez egin diezaioke aurre horrelako proiektu bati, "geuk ere" dio Labordek "Tolosan dauzkagun beste zenbait zerbitzuren truke ordaindu behar izaten diogu bertara joan behar den billabonatarrari, kirodegira edota musika-eskolara adibidez. Gainera une honetan beste hainbat zerbitzu ere mankomunutzen ari gara eta haur-ekolarekin ere berdin egin beharko genuke". "Billabonako Udalak egin ezin duena beste herrietako haurren kostua beregain hartzea da" dio bestalde, "etxeren mantenimendua, baruko gastuak eta material pedagogikoa esate baterako guk ordaintzen baititugu".

"Udalak berari ez dagozkion zenbait ekimen bultzatu behar dituela uste dugu" dio Labordek "eskari handia zegoela ikusita, egitasmoa bultzatu egin genuen, eta aurrerantzean ere hitzartutakoa betetzen jarraituko dugu. Nolabait, LOGSE legea aplikatu bitartean lana aurrerantzean ari garela iruditzen zaigu, izan ere guk publikotzat jotzen dugu haur-eskola"

LOGSE delakoak eskola-adina 0-16 urte bitartean ezartzen duela, baina 0-2 bitartean une honetan finantziatu gabe dagoela, eta kontuan harturik azken urteetan jaiotze-kopurua igo egin dela eta hori oso onuragarria ikusten delarik, 0-2 urteko umeen gurasoei dirulaguntza eman nahi die haien hezkuntzarako, hezkuntza edo eskolarizazio-sistema egokiena zcin den gurasoen eskuetan gelditzen delarik" hauxe dio Udala Batzarrak onartutakoak. Hauek ere gurasoen diru-sarreraren arabera 0-2 urte bitarteko Asteasuk haur guztiei ematen dizkiete dirulaguntzak, haur-ekolara joan ala ez. 3.683.879 pezetatik gorako diru-sarrera duen familiak ez du dirulaguntzarik. Gehien

Herritarrak gertuen duen erakundearengana jo ohi du

Guraso Elkarteak hasieratik izan zuen oso garbi erakundearen dirulaguntza behar zuela. Diputazio eta Eusko Jaurlaritzakoak hutsaren parekoak izanik, Udaletara jotzea erabaki zuten, "ongi asko dakigu hau ez dela Udalen kompetentzia baina herritarrak gertuen daukan erakundearengana jo ohi du beharra daukanean" dio gurasoetako batek. Hori dela eta, orain bi urte Seaskak hitzarmen bat sinatu zuen Billabonako Udalarekin. Horren arabera gurasoek 22.000 pezeta ordainduko dute aurrean gehienez, beti ere Udalak urtez urte gutxiago ordainduko dueneko ideiaz. Halere, guztiek ez dute diru-kopurua bera ordaintzen: profesioarteko gutxienezko lan-saria jasotzen ez duenak ez du ezer ordainduko, 3 milioi pezeta baino gehigoko diru-sarrerak dituenak gehienez ezarritako kuota osoa ordaindu behar du.

Nork bere erabakia

Billabona, Asteasu eta Zizurkilgo Udalen jarrerak ordea, ez dira berdinak izan. Orain bi urte Billabona eta Zizurkilek onartu zieten



Guraso eta hezitzaile batzuk

proposatutakoa, Asteasuk irizpide ezberdina ezarri zuen. Aurrean Billabonak iaz hitzartutakoarekin aurrera jarraitzen du, baita Asteasuk ere, eta Zizurkilek dirulaguntzak murriztu egingo dituela aurrerantzean da: 1.500.000 pezeta ordaindu zuen iaz herriko hiru haur Seaskan izateagatik, aurrean berriz. Udala Batzarrak aho batez onartu du gehienez 1.000.000 pezeta ematea. Matrikula-epea oraindik irekita dagoenez ez dago argi Zizurkilgo gurasoei neurri horrek nola eragingo dien.

Asteasuk, esan bezala, bestelako irizpidea ezarri du: "Kontuan harturik

jasotzen duenak, hau da 613.979 pezeta azpiko sarreak dituenak, hileko 14.633 pezeta jasotzen du umeko. Derri-gorrezko baldintza da gurasoek errenta-aitorpena aurkeztea. Guztira 500.000 pezeta gastatu zituen iaz Udalak.

**0-2 urteko haur
gutzienezko
dirulaguntzak,
haur-ekolara
joan ala ez**



Julen Unanue
Asteauko Udaleko
Kultura batzordeburua

Asteasuko Udalak hartu zuen erabakia hartu aurretik: "Orain lau urte haurtzaindegia irikitzeko ideia sortu zen herrian, eskolak bi urteko haurrak hartzeari ezetz esan ziotenean. Gurasoekin bildu ginen eta Udalak agertu zuen orduan haurtzaindegia eraikitzeko borondatea, baina kontuak egin eta zerbitzua oso garestia izango zela konturatu ginen". Egitasmoa bertan behera geratu zen. "Luze hitz egin genuen orduan gurasoekin eta bi urte aurretik inork ez zuela haurrik haurtzaindegira eraman nahi argi geratu zen". Azkenean, gainera, eskolak bi urteko haurrak hartu zituen eta arazoak, nola edo hala, arazo izateari utzi zion.

Duela bi urte Seaskako gurasoek beste Udaletan egin zuten bezala Asteasuri dirulaguntza eskatu zioten. "bere burua bailarako haurtzaindegizat hartzen dute. Guk ez dugu publikotzat jotzen, gure ustez haurtzaindegi pribatua da, eta Billabonako Udalaren laguntzarekin egiten du lan" dio Julenek. "are gehiago, bere irizpide partikularrak inposatu nahi dizkigu. Bestalde bailarako Udalek ez zuten ez kontratazioetan, eta ez beste erabakietan parte hartu". Orduan ere herrian aurreko eztabaida bera sortu zen eta ondorio berbera iritsi ziren, alegia, bi urte aurretik inork ez zuela haurrik haurtzaindegira eraman nahi.

Hori ikusita, haurrak haurtzaindegira eramaten zituzten gurasoei dirulaguntzak eman ala ez erabaki behar zen, "herrian presio handia izan zen, baita mehatxuak ere, haurtzaindegira eramatearen aurka zeudenen aldetik" dio Julenek. Hori dela eta, adin horretako haurren guraso guztiei dirulaguntzak ematea erabaki zuen Udalak, haurrak haurtzaindegira eraman ala ez.

Gurasoak haserre

Guraso eta hezitzaileak ez daude konforme Zizurkilgo Udalak egin duen murriztapenarekin, are gutxiago Asteasukoaren jarrerarekin. "Haur-eskolaren proiektua behar bezala aztertu ez dutelakoan gaude" diote, "ez zaie iruditzen bailarako zentrua denik, baina herri guztietan ezin da eskola bat ireki, garestiegia da eta zaila adin bereko behar adina haur-kopurua biltzea". Zizurkilgo Udalaren erabakia baloratzeko eskatu diegu: "Horrek behintzat, gure proiektua entzun du, baina hala ere, egin duena *karamelo-erdia* ematea baino ez da. Zizurkilen eraman nahi dituztenak gehiago izanez gero, beharbada, ezingo lukete, laguntza txikia izanik".

"Asteasukoak ez du ez hanka eta ez buru" diote, "jarrera hori haur-eskolarekin bakarrik zergatik hartzen duten da kezkatzen gaituena, musika-eskolara joaten direnei adibidez, ematen dizkiete dirulaguntzak, zergatik ez diete joaten ez direnei dirulaguntzaren bat, era berean, ematen? Horren arabera herritar guztiak subentzionatu beharko lituzkete", diote Asteasun hartu den erabakiari buruz. "Gakoa beste hau da: diru publikoa Udaletik irteerakoa dela bakarrik iruditzen zaio jendeari. Defizitarioa hezkuntza-sistema osoa dela esan behar da, baina gobernuak ordaintzen duenez, ez gara konturatzen hori ere diru publikoa dela". Bi zehaztapen ere egin dizkigute: "Zergatik esaten da 2 urtekoen hezkuntza aukerakoa dela eta ez 3koena? Legearen arabera derrigor-

Zizurkilgo Udalak bando baten bitartez jakinarazi du haurrak haur-eskolara eramango dituzten gurasoen artean gehienez ere milioi bat pezetan banatzeko asmoa daukela. Erabaki hau aho batez onartu du Udal Batzarrek. Iaz hiru haur joanda milioi terdi gastatu zuen Udalak.



Gurutze Asuabarrena
Zizurkilgo Udaleko
zinegotzia

Gurutze Asuabarrena zinegotziak azaldu digunez "Udalak badiu derrigorrez aurre egin behar dizkien arloak, eta hezkuntza ez da horietako bat. Gure filosofia orokorrean behar duen orori laguntza ematea da, baina lehentasunak ere ezarri behar dira eta kasu honetan, aurrekontu-arazoak direla eta, haur-eskolari ezin zaio diru gehiago eskaini".

"Gurasoak Udalaren aurrean presioa egin beharrean, zergatik ez dute Hezkuntza sailean egiten?" galdetzen du Gurutzek. "guk proposatu genien denak elkarrekin joan eta eskari hori egitea, baina nahiago dute Udala presionatu, hori baita errezena". Bere ustez auzi hau ez da konponduko LOGSE legea martxan jarri arte, eta honi dagokionez ez da oso baikorra, luze igaro beharko duela pentsatzen baitu.

Gurutzek haur-eskolei buruz ere bere iritzia agertu digu: "Nire ustez oso onuragarria da haurrarentzat, sozializatzeko batez ere. Etxean gainera ez dute izaten nahi dutena egiteko leku aproposarik. Ni, dudarik gabe, haurrak, ordu pare batez besterik ez bada ere, txikitatik eramatearen aldekoa naiz. Halere, askok oraindik ere *haur-aparkalekutzat* hartzen dute haur-eskola, bi senideek lan egiten duten guraso askok batez ere, eta kontzepzio hori edukita ere, dirulaguntza eskatzen diote Udalari, ezin da dena eduki" esaten digu. "haurra izan, lanik ez galdu eta dirua ondo irabazi gainera".

tasuna 6 urterekin hasten da"; "Egia da haur-eskolak ez direla Udalen kompetentzia baina egia da ere legeak 3 urtekoentzat herri edo bailara guztietan hezkuntza ziurtatzea agintzen duen eran, agintzen duela 0-2 urte bitartekoentzat ziurtatzea".

LOGSE legea garatzerako 10 urte gutxienez

Iritzi kontrajarrioen gainera zehaztapen batean guztiak bat etorri dira, alegia, LOGSE legea bere osotasunean indarrean jarri beharra dagoela, haur-eskolen arazoari irtenbide bat emateko. Dena den, errealistak izaki, guztiek aitortu digute, 10 urte gutxienekoak izango direla legea aplikatzen hasterako. Bien bitartean haurra jaiotzen den une beretik merkantzia bat denaren sentzazioa ere izan dugu guztiekin hitz egin eta gero, haur-eskolek beretzat nahi dituzte 0-3 urte bitarteko haurrak, ikastetxeek aldez, haur eskasia dela eta, gero eta adin txikiagoko haurrak hartzen dituzte, jakinik gainera, legeak galerazi egiten duela, baina arazoa konpondu bitartean "politikoez ez ikusiarena egiten jarraituko dute" diote gurasoek.



Udaletxea berrituko dute

ADUNA

Udan emango zaie hasiera Udaletzeko berritze lanei. Duela hogeita hamasei urte inaguratutako etxea ez dute botako baina barrualde osoa aldatzeko asmoa daukate. Izan ere, garai bateko Udal bulegoak txiki samarrak gelditu dira egungo beharretarako. Honez gain Kultur Etxea eraikitzeko lehen urratsak eman nahi dituzte. Lanek 40 milioitik gorako aurrekontua eskatzen dute, "etxe berriak egiteko urbanizazioarekin batera, urteko lan nagusia izango da hau, beste proiektu gutxi eraman ahal izango ditugu aurrera inbertsio honez gain" dio Jabier Zabala Alkateak.

"Gaur egun ez litzateke halako etxerik botako" dio Zabalak, izan ere, harrizko eraikuntza sendoa zen aurreko udaletxea. Berria eraiki zenean etxearen behaldea bi eskolak jarri zituzten, neskena alde batetik, eta mutilena bestetik. Lehenengo solairuan Udal bulegoek gain etxebizitza bat ezarri zuten, eta bigarrenean berriz bi etxebizitza, oraindik ere hor daudenak, baina. Alkatearen esanetan aurki libratuko dituztenak. Gaur egun ordea, txiki geratu zaizkie bulegoak eta premiazkoa zaie berrikuntzak egitea.

Behaldea momentuz tabernak jarraituko du, "baina egunen batean ere hortik atera beharko dugu" dio Jabier Zabalak. Honez gain beste zenbait kultur ekintza eta ekitalditarako gela bat egingo dute, nesken eskola zen lekuan. Lehen solairu oso-oso bulegoetarako egokituko dute, eta bigarrenean Kultur Etxea kokatzeko asmoarekin

egingo dituzte lanak. Lehenengo solairuko lanak izango dira handienak, dena botako dute, eta gelen banaketa behar berrietara egokitu dute. Lan horiek aprobetxatuz, bestelako konponketa batzuci ere ekingo diete, orain arte potentzia txikiko argi-indarra baino ez zuten, orain berriz, arazo horri ere konponbideren bat eman nahi diote.

aldean erabilera anitzeko gela egin-go dute. Bi urte barru gutxi gorabehera ekingo diete hurrengo lanei, hau da, goiko Kultur Etxea egokitzeari. "Gure helburua momentuz azpiegitura ezartzea da, ondoren ikusi egin beharko da herria dinamizatzeko kultur ekitaldi eta ekintzak nola antolatu".

Lehenengo solairuko lanak egin bitartean, Udal bulegoak taberna ondoko gelan egokituko dituzte. Aldi berean fatxadari txukundu bat eman eta teilatua konpontzeko asmoa ere badaukate. Ondoren behe-



1958, Gotzaia inagurazio egunean, Modesto Zabala alkatearekin, Juan Iruretagoiena parrokoarekin eta Jose Manuel Goenaga mezalagunarekin

Joxe Mari ITURRALDE
ZURGINDEGIA
 Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.
 ADUNA - ☎ 69 20 81

OINETAROKAR
 SAN JUANETAN ERE DANTZAN
 ZAPATAK PUSKATU ARTEAN
MODESTA ARANBURU Kale Berria, 28 - ☎ 59 03 07
ANDOAIN


XIXORI
BELARDENDA
 DIETETIKA ZENTRUA
 KONTSULTA NATURISTA
 Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN



GAROA
auto eskola
 ONDARRETA KALEA, 7 - TELF. 591759
 20140 - ANDOAIN



Herriz herri

Eguneko Egoitza udazkenerako

Andoain



Eguneko Egoitza

Elizaren atzealdean eraikitza berri bat bukatze dagoela eta, Ana Sanz Udal asistentia sozialak eman digu bere berri. Eguneko Egoitza bertan izango dela zabaldu da dagoeneko herrian, baita San Juanetan inaguratuko dutela, baina adierazi digutenez, asmoa hori baldin bazen ere, arazo batzuk direla medio, azkenean urri edo azaro aldera zabaltzea espero dute Eguneko Egoitza.

Zentru horretaz gain bertan izango dira, era berean, Jubilatuen Klub berria eta Ongizate departamentua, hau da, eraikitza berria Zerbitzu Sozialetako etxea izango da. Geroago litekeena da beste zerbitzu batzuk gehitzea baino oraingo horiek izango dira martxan jarriko direnak. Eguneko Egoitzaren helburua edadetuek erresidentziara ahalik eta beraduen jo behar izatea da. Elbarrituak edo minusbalia handi batekin etxean behar bezala atenditu ezin dituztenak,

esate baterako, Egoitzara jo ahal izango dute. "Zerbitzu hau etxeko asistentziarenaren osagarri izango da" azaltzen digu Ana Sanzek, "hasieran edadeko pertsona bat atenditu ezin zenean erresidentziara eramaten zuten, gero etxeko asistentzia sortu zen eta orain berriz. Eguneko Egoitza, beraz, bitarteko pauso bat dela esan daiteke".

Andoainen 64 urtetik gorako 1.454 pertsona daude, hau da populazioaren %9,5a, beraz, eskari potentziala badagoela uste da. Sanzen esanetan etxeko asistentzia motz gelditu zaie, gurgildun aulkitan edo tronbosia jota dauden pertsonengana iristeko, kasu. Gainera, etxeko laguntza bi ordutakoa izan ohi da, zentruan berriz, goizeko bederatzit'erdietatik arratsaldeko bost t'erdia arte egon ahal izango dira. "Zenbaitek bere gurasoak erresidentziara eraman nahi ez baditu edo etxean atenditu ezin badituzte, lan egiten dutelako adi-

bidez" -dio- "zerbitzu hori laguntza handia izango dela uste dugu". Egoitzara jo aurretiko baldintza da balorazio sozial eta osasuneko egitea.

Etxea

Etxean deskantsu-gela bat izango da siestarako. "Laborterapia-gela" deiturikoa ere izango da mantenimendu eta erreabilitaziorako egin behar diren ekintzetarako. Halaber, enfermeri-gela bat inor gaizki jarriz gero, etxera joan bitartean oheratzeko. Egoitzan bi langile izango dira, auxiliarrak alegia. Hauek, halaber, agureen aisialdiaz arduratuko dira, izan ere, zentroa aktiboa eta bizia izatea nahi dute eta ez, ezer egin gabe, egoteko soilik leku bat izatea.

Egunerokoa

Garraio-zerbitzua izango dute beren kabuz etorri ezin dutenek edota urruti bizi direnek. Ondoren bere kabuz bainatu ezin dutenei bainu-zerbitzua eskainiko zaie. Hamabiak aldera otordua, eta gero nahi duenak siesta egiteko aukera izango du, jarraian, ekintzak, nahi izanez gero. Joan aurretik merienda emango zaie. Osasun-zainketari dagokionean, anbulatorioa bertan dago eta behar izanez gero, medikua joango litzazkie. Honez gain, egoitzan bertan tentsioa hartuko zaie, kura txikiak egin eta medikamenduak emango zaizkie.

Txomin Etxeberria



Zabala
Ordukari Bitxitegia


Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI



ALOTZ
IZOZKINAK

KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN

Herriz herri



Elizmendin bada Gaztetxe bat

Asteasu

Urte t'erdi daramate Elizmendiko punta-puntan, Santa Krutz ermitaren ondoan. Udalarekin tira-biraren batzuk izan zituzten lokala lortzeko, herrian ere ez zitzaion ideiar oso harrera onik egin. Baina, azkenean, konpondu eta ireki lortu zuten Gaztetxea irekitzea. Ez da gazte asko bertara igotzen, horregatik, beharbada, ez dira antolatzen beraiek nahi adina ekintza. Dena den, Gaztetxeakoak harro daude euren etxolaz; ia dena 100 pezetan saltzen den barra txiki bat, kontzertuak egin eta antzerki-saioren bat antzezteko asmoarekin kokatutako oholtza, futbolina, pin-pona..., eta hantxe egonean, igarotzen dituzte Gaztetxeako gazte asteasuak hauek arratsalde asko eta asko.



Denak ezkutatu egin ziren

Ostiraletako kontzertuak izan ohi dira hutsik egin gabe izaten den ekintzarik nabarmenena. "Gauzak antolatzeko *busti egin* beharra dago eta jendeak ez dauka horretarako gogo handirik" dio Ramirok. "bestalde, jende gaztea ez da igotzen, gehientsuenak lanean egon ohi direlako eta herrian ere ez zait iruditzen horretarako girorik dagoenik...". "Jendeak badaki Gaztetxe bat zer den, igotzen ez dena nahi ez duelako da" dio. Kanpotik gehiago etortzen omen dira, Asteasu bertatik baino.

Herrian Gaztetxearen aurka gaizki esaka ere ibiltzen direla iruditzen zaie, eta kexatu ere asko kexatzen direla, musikagatik adibidez, "dena den, bitxia da" dio "berez, kexatzeko arrazoiren bat izan beharko luketenez ez dira kexatzen, eta besteak..., ez dakit zergatik", gaineratzen du harrিতuta. "Jendeak Gaztetxe hitza entzun eta berehala asaldatzen da" esaten digu azkenean.

"Zenbat eta gutxiago elkartu hobe" erantzuten digu Udalarekin duten harremanei buruz galdetzean. Udalak lokala utzi egin die, baina hasieran konponketa-lanak beraiek egin zituzten, "eta gure poltsikoetako diruaz" gaineratzen dute. Ramiro partaide den "Obsidio" musika-taldekoek bertan egiten zituzten entsaioak lehen, baina urez bete zitzairen eta, konpondu eta Gaztetxerako lokal aproposa izan zitekeela iruditu zitzairen.

Oraindik ez dakienari esan, Gaztetxea arratsaldeko 3etatik bertakoek aspertu arte egoten dela irekita, hamabiak edo ordubatak arte, alegia. Ikusi ez duenari esan, lokala leiho batetik kulunkatzen den ikurriña bat ikusita ezagutuko duela. Behin bertaratuta, erne han inguruan ibili ohi den txakur koadrilarekin! Eguraldi ona eginez gero, etxearen arkupetan aurkituko dituzu gazteak, bestela, barrura sartu. Pakito da, ziurren, bertan aurkituko duzuna.

ANTZOLA, S.A.

Aroztegia

AROTEGI MEKANIKOA
ETXEBIZITZETARAKO BEREZIKI

ELBARRENA AUZOA - ☎ 69 23 46 - ADUNA

ATE TRINKO ETA BLINDATUAK
BARRUKO ATEAK
LURRAK
NEURRIRA EGINDAKO ESKAILERAK
MOTA GUZTIAKOKO ARMAIRUAK

POSTA KUTXATILA. 126 - ANDOAIN

PATXINE JATETXEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAI
SU KALDARITZA ETA ETXEROKO POSTERAK
Errementari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Aita Kandiola z. e. 307, Mendiaketa - ☎ 59 20 23
ANDOAIN

ASESORIA
GESTORIA
ASFGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN



Herriz herri

Gaztetxeari buruzkoak

Billabona-Amasa

14

Maiatzaren 27an Ertzantzak Gaztetxean leherkariak eta haxix-a aurkitu zituen eta horren ondorioz, aurrerantzean Gaztetxearen funtzionamendua arautzeko zenbait neurri ezarri ditu Udalak. Gazteek neurri horiek Gaztetxea ixteko boron-

Maiatzaren 27an atxilotu zuten 24 urteko P.M.I.E gaztea. Irurtzun-Andoain autobideko obretan egiten zuen lan eta bertatik goma-2 kartutxo batzuk lapurtzea egotzi zioten. Gaztea atxilotu zuten unean 220 gramotako goma-2 kartutxo bat eta leherkari berdinez eginitako 100 gramotako bola bat zeramatzan soinean.

Billabonako Gaztetxean leherkari gehiago zegoela aitortu zuen gazteak. Ondorioz, gaueko 1.30etan Tolosako epailearen baimenaz, ertzainak Gaztetxean sartu ziren. Uniformez eta kaleko jantziak zeramatzaten ertzainek une horretan Gaztetxean zeuden hamabost gazteak arakatu eta hormaren kontra eduki zituzten. Gaztetxea miatu ondoren ertzainek 1.4 kilogramo goma-2 eta 530 gramo haxix aurkitu zituen. Era berean ustez leherkariak erosi zituzten I.J.A.Z eta J. M.I.A atxilotu zituzten.

Gaztetxea ixteko mehatxua

Billabonako Udalak oso larritzat jo ditu gertaera horiek. Udal Biltzarrak azpimarratu duenez "nahiz eta Gaztetxearen barruan aurkitu zen droga (haxixa) eta leherkariak pertsona bati edo biri lepora dakizkiokeen, gertaturikoak ezer gutxi esaten du Gaztetxeko gainerako kideen mesedetan". Horrez gain, gertaera horren ondoren Kale Berrian izan ziren txikizioetan Gaztetxeko jendeak parte hartu izana ere leporatzen diete. Hori guztia dela eta, Udal Batzarrak Gaztetxearen funtzionamenduari

datearekin ezarrita daudela uste dute. Udal Batzarrean lokalari buruz hartu ziren erabakiak gazteei helari zitzaizkien zazpi eguneko epean bete zitzaten, Gaztetxea behin-betiko ixtearen mehatxupean. Gazte Asanbladak Udalak onartutakoari bere erantzuna jakinarazi dio dagoeneko.

buruzko bost baldintza ezartzen zituen idatzia onartu zuen. Baldintzak bete ezean, Gaztetxea itxiko dutela dioen erabakia, alegia.

Gazte Asanbladak publikoki salatu beharko luke Gaztetxea drogen kontsumo eta trapitxeorako nahiz leherkariak edukitzeko erabili izana, horrelakorik berriro gerta ez dadin beharrezkoak diren neurriak hartzeko konpromezuarekin. Idatzi horrek Udalaren oniritzia eduki beharko luke.

18 urtetik beherakoen edari alkoholikoen kontsumoa arautzen duen arautegia betetzeko bermarik ez existitzearen ondorioz eskatzen da halaber, barra kentzea. Hirugarren baldintzak dio Gaztetxean zuzeneko kontzertuak egitea debekatzen dela. Ordutegia ere aldatu egin nahi dute: goizeko 10etatik gaueko 10ak arte.

Gaztetxeak Udalari 250.000 pezetako ordainketa egitera behartzen du "Kale Berrian egin diren apurketen ordainetan". Ordaindu ezean, Gaztetxeko sei kidek doan egin beharko dute lan Udalarentzat hamabost egunetan.

Erlaziorik ez

"Garbi utzi nahi dugu aurkituriko leherkari eta haxixarekin ez dugula erlaziorik" diote gazteek, atxilotuek beren kabuz jokatu zutela.

Bestalde, Gazte Asanbladak "txantaiatzat" jo du Udalaren erabakia, eta horregatik, banan-banan erantzun die Udalak ezarritako baldintzei: Udalak Gazte Asanbladari eskatutako salaketa publikoari dagokionean, "txundituta" utzi omen ditu idatziari Udalak bere oniritzia eman behar izateak.

Alkohol kontsumoari dago-




Gaztetxea

kionean "Gaztetxean ez dago geroztik alkoholik" diote. Dena den, hipokritizat jo dute Udalaren jarrera, "Udalak ba al du, benetan, herriko tabernetan 18 urte beherakoek alkoholik edaten ez dutenaren garantiarik?".

"Zer egingo dugu gazteok 10etatik aurrera?" galdetzen dute gazteek eta "kontzertuak egiteko beste lokalik ez badago, zergatik ez da Gaztetxea insonorizatzen?" gaineratzen dute.

Kale Berrian izandako txikizioak direla eta, eskatu den ordainketari baietza eman diote gazteek. "Lan egitea onartu dugu, txikizioen ardura gurea ez bada ere" diote. Dena den, eskaturiko sei lagun ordez, Gazte Asanbladako hogeita hamaren bat lagun aurkeztuko dira lan egiteko. "Udalaren txantaiaren aurrean, nola edo hala, Gaztetxea irekita mantendu nahi baitugu" diote.


Agosti Garmendia



Apaiz-etxea bisitarien aterpe

Herrigunera sartu aurretik, elizaren atzealdean, ziur aski Larraulgo bistarik onenak eskaintzen dituen etxeak urte osoan zehar Gipuzkoa eta inguruko bisitariak hartzen ditu. "Hezkide Eskola" dioen egurrezko errotulo batek egiten dio harrera bertaratzen denari, eta behin apaiz-etxea zenean sartu orduko hiru solairuko egurrezko etxe handi eta abegikorra aurki daiteke. Izan ere, Gotzaitegiak utzia da etxe hau, Hezkide Eskolak duela hamar urte inguru berritua, eta orain aisialdi eta susperketa soziokulturaleko ikasleek euren ikastaro egunetan hartzen ez dutenean, talde eta banakakoak izaten dira bertan. Aipatzekoa da, bestalde, urtero Donostiako familia oso batek apaiz-etxean igarotzen dituela Gabon egunak, nonbait, parajeak eta etxearen berotasunak erakarrita. Iaz guztira 2.815 lagun bertaratu ziren.

Etxeak eskaintzen dituen zerbitzuak asko dira: 70 laguntzako oheak, jangela, sukaldea, ur beroa, berogailua, sei bilera-areto eta zibilizazioarekin harremanetan jarri gabe pasatu ezin duenarentzat, baita tele-



Zurriolako ikasleak beren lehen egunean

fonoa ere. Baina, gehien estimatzen diren zerbitzuak, dudarik gabe, Mertxe sukaldariaren plater goxoak eta Josuneren arreta dira. "etxea hobeto edo okerrago egonda ere, jendeari tripa ongi betez gero gustora ibiltzen da, eta Mertxerekin ez dago gaizki janda gelditzeko modurik" dio etxearen mantenu, harreman eta bestelako gorabeheretaz arduratzen den Mari Juli Azkue asteasuarrak, "haur askoren lehen barazki platerrak edota pureak hemen jandakoak izan dira".

Bisitari guztiak primeran pasatzen dutelako zalantzarik ez dago Do-

nostiako Zurriola ikastolako neska-mutilen jolasgura ikusita, ez du behintzat ematen Larraulen egokitu eta etxean bezala sentitzeko lan handirik izan dutenik. Halaber, egun batzuetan bete-bete euskal giroan sentitzeko ere leku aproposa da Larraul. "Euskara maila: herrian euskara besterik ez da hitz egiten" dio propoganda triptikoak. "Etxearen araua da, bestalde, denbora luzeegiz, instalatzeko asmoz edo, ez gelditzea" dio Mari Julik. Oharra berez ez dago batere gaizki, batek baino gehiagok izan baitezake bertan luzaroan gelditzeko tentazioa.

LARRAUL

15

HERRI OSTATUA



Taberna
Jatetxea

HERRIKO PLAZA - ☎ 69 18 55 - LARRAUL

Ikatza

Taberna

GIRORIK JATORRENA !!

Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89 ANDOAIN

URBIETA ANAIAK GARRAIOAK


GARRAIOAK ORO HAR

- Ganadu, txirbil, zerrauts, lasto eta baserrirako behar duzuna
- Bolketea eta grua duten kamioiak ditugu

KALITATEZKO SU EGURRA

- Neurrira moztuta eta urte osoan
- Haritza eta pagoa
- Etxerainoko zerbitzua

Larraulgo plaza, Etxeberri etxea, 1 - ☎ 69 35 76 - LARRAUL



Herriz herri

Zizurkil

Onartu da kirol-instalakuntza irekien proiektua

Onartu berria izan da Zizurkilen eskualderako aisi eta kirolerako gunea izango den egitasmoa. Proiektu horren arabera kiroldegi ireki bat eraikiko da Zizurkilgo Elbarrena auzoan eta bertan, igerileku handi bat, korrika egiteko pista eta tenis-pista batez osaturiko instalakuntzak egongo dira.

Azaldu beharrekoa da proiektu piloto bat dela berau, ez baitago horrelako kirol instalakuntzarik inguruan, eta horren ezaugarririk garrantzitsuena aisia eta kirola elkartuko dituen gunea izatea da. Ez da izango ezagutzen ditugun kiroldegi arrunt horietako bat, kirola egiteaz gain, aisia edo dibertsiorako balioko duten instalakuntzak izatea baitu helburutzat. Azken batean, kirola praktikatzea eta asialdia bat egingo dira, herriko gazte eta hain gazte ez direnen gozamenerako.

deko herritarrei zerbitzurik egokiena nola eskaini aztertu beharrekoa da.

Horrela proiektu bat aurrera ateratzeko dirua eskatzen du, diru dexente beharko da berau egiteko, eta Gipuzkoako Diputazioak emaniko diru-kopurua ez da, baina, nahikoa. Kontuan hartu behar da gainera, proiektu honen nondik norakoak oraindik aztertzeke daudela, eta hau garatzen doan neurrian finkatuko dira proiektua egiteko beharrezkoak diren kontuak. Itxaron egin beharko dugu bitartean, 1997ko data baitu kiroldegi horren lanen hasierak. Finean, oraindik hastapenentan dagoela esan dezakegu, proiektua onartua izan bada ere, aztertu behar da guzti horrek esan nahi duena eta egin behar diren lanak, baina badirudi aisi eta kirolerako instalakuntzak izango ditugula Zizurkilen hemendik urte batzuetara.

Ainhoa Oartzabal

16

Instalakuntza berritzaileak

Aspalditik dator horrelako instalakuntza bat egitearen asmoa eta Zizurkilgo Udalez aparte, inguruko herriko Udalak ere aztertzen ari dira proiektu honen nondik norakoak. Izan ere, eskualde honetako herri batzuetako biztanleak arazoak dituzte kirolzerbitzuei dagokienean. Tolosara edo beste herriren batera joan behar izaten baitute kirola egiteko. Erabat berritzailea den kiroldegi-mota hori gauzatzearen lana ez da makala. Azterketa ugari egin behar dira aldeztetik proiektua martxan jartzeko: zenbateko aurrekontua behar duen, zein leku den egokiena kiroldegia eraikitzeko eta azken finean, eskual-



Elbarrena futblo-zelaia

ER.NIOBIDE
JUAN CARLOS ARICETA

ZURGINDEGIA

-Erreformak oro har
-Neurrira egindako armairuak

Agaraitz auzoa, z/g - ☎ eta Faxe 69 26 75
BILLABONA

HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA

Almaia Kortajarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

ZIZURKIL



ZUBI
AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

Soldadutzari intsumisioa, desobedientzia estatuari



Inork ezin dezake dagoeneko uka gure herriotan badaudenik soldadutzaren aurka dauden gazte talde handi eta zaratatsu samarrak. Soldadutzaren ordez, intsumisioa proposatzen dute, alegia, botereari desobedientzia. Borroka hori ez da bat-batean sortu, historian atzera eginez gero konturatuko gara arrazoi bat edo bestea dela medio, soldadutza egin nahi izan duten gazteak, gehiago edo gutxiago, beti izan direla. Estaduak eta epaileek legea hausten ari direla diote, eurak berriz intsumisioa eskubidea dela. Komunikabideak, ez beraiek nahi beste, baina ematen ari dira gatazka horren aurrean gazteak hartzen ari diren gero eta jarrera gogor eta erradikalagoaren berri. Besteak beste, hara hor apirilean Iruñean 80 preso intsumisioek ekin zioten gose greba edota maiatzan lau gazte bizkaitar eta iruñear batek hirugarren gradua urratzeko hartu zuten erabakia, hala nola, ondorengo itxialdia Bilboko San Anton elizan, “desobedientziaz gaitasun publikoa eta transformatzailea daukagula adierazi nahi dugu” zioten.

Andoinen lehen ere MOCen inguruan bildu ohi zen talde antimilitarista bazegoen. Oraingo taldea berriz, ez da inongo siglen pean biltzen, egun zenbait gazte andoindar jasaten ari diren edota aurki jasango duten egoerari, auziak edota espetxea hain zuzen ere, aurre egiteko bildu dira. Ernio-Beheako Talde Antimilitarista, Armatroste, berriagoa da, duela hilabete batzuk ekin dio lanari eta 10-15 lagun biltzen dira bertan. Orain dela urtebete inguru antzeko talde bat osatzeko saiakeraren bat izan zen, baina arrakasta handirik gabea. Orain mugimendua indartu denean eta jarrerak gogortu, taldea sortzeko unerik aproposena izan dela ematen du.

Andoainen 19-24 urte bitarteko 70 gazte intsumisio izango dira gutxi

gorabehera. Dena den taldeak berak ez daki kopuru zehatza, izan ere, epaiketak iritsi ahala ari dira gazteak taldera biltzen. Dena den soldadutzaren aurkako jarrera hartzen ari direnak gero eta gehiago direla adierazi digute. Hamar gazte andoindar epaitu dituzte aurten. Iaz bi auziperatu zituzten, une honetan Martuteneko espetxean hirugarren graduan kartzela-zigorra betetzen ari den Julio Abrego da horietako bat. Hemezortzi hilabetez egin beharko du lo astelehenetik ostegunera Martutenen. Dena den, bera ez da lehena izan, bere aurretik, orain dela bi urte Asier Garmendia eta Imanol Huizi epaitu zituzten. Lehenengoak epaiketa militarra izan eta gero kartzela-zigorra bete zuen hilabetez espetxe militar batean, orain epaiketa

zibilaren zain dago eta 18 hilabeteko kartzela-zigorra egotzi nahi diote. Huizik hirugarren graduan bete du gartzela-zigorra. Halaber, iraila eta Abendua bitartean hogeitaka epaiketa izango direla aurrikusi du taldeak.

Talde irekiak eta pluralak

Taldekideek izaera independentea daukatela diote eta hala jarraitu nahi dutela. Hala ere, taldeak irekiak dira, arrazoi ezberdinek eragindako intsumisioak biltzen dira beraietan.

Andoianen ikuspegi berekoak dira, “gaur egun intsumisioak gara denak, eta denak dugu helburutzat gizartea antimilitarista bilakatzea, dena den gure xedea objektioa eta beste gai batzuk jorratzea ere bada” dio Asier Mirón andoaindarrak.



Ekintza batzuk benetan deigarriak izan dira

Arrazoi berberetatik taldeki-deek epaiketen aurrean nor bere erabakiak hartu ohi dituzte eta ez dira auzitan jartzen, hala ere, "gizartean gero eta oihartzun handiagoa izan dezagun beharrezkoa da era berean jarrerak homogeneizatzea, eta nire ustez, auzitegiaren aurkezteari uko egitearen eta hirugarren gradua haustearan inguruan bildu beharko ginatke poliki-poliki gazte intsumiso guztiak" dio Lander Etxeberria billabonatarrek.

Mugimendu eredu-emailea

"Oro har gizartea intsumisioaren aldekoa, edota soldadutzaren aurkakoa dela esan daiteke" diote guztiek, hala ere, ez du ematen taldeok oraindik behar bezalako prestigioa dutenik, "guk garbi utzi behar dugu talde marginalizat hartzen gaituztela Andoainen" dio Asierrek, "benetan ez dugu oraindik lortu daukagun potentziala aprobetxatzea. Senideak beraiek oso garrantzitsuak dira, intsumiso bakoitzaren atzean bere familia dago". Andoainen, hain zuzen ere, senideen plataforma bat osatu nahian dabilzala adierazi

digute. "Apenas lortu dugu, bestalde, jende edadetuaren inplikazioa" dio Landerrek, "eta zaila izango da, hau guztia beraien arazoa ez dela iruditzen zaie". Nesken parte hartzeaz ere beraien iritzia eman dute, eta dudarik gabe, intsumisioaren aldeko borrokan pertsonen sexuak zerikusirik ez duelakoan daude, "gizarte antimilitarista lortzea ez da gizona edota emakumezkoen nahia, gizakiena baizik".

"Talde marginalizat hartzen gaituzte"

Daukatena baino arrakasta haundiagoa ez izatearen arrazoietako bat koordinazio falta dela azpimarratu dute behin eta berriro. Hala ere, denek baieztatu dute intsumisioa egungo giza-mugimendu indartsuenetako bat dela. Iruditu ere egin zaie beste zenbait mugimenduentzat eredu izan daitekeela ezartzen ari diren desobedientziaren jarrera eta, dudarik gabe, Estaduan Euskal Herria dela aintzindari. Euskal Herriaz hitz

egitean Nafarroan ematen ari den egoera bereziaz hitz egin digute, non jarrerak ezinbestez gogortzen ari baitiren, epaileak ezartzen ari diren zigorren aurrean eta alderdi politiko eta erakundeen laguntza eskasa dela eta. Euskal Herria zergatik ote den aintzindari galdetu diegunean honela erantzun digu Lander Etxeberria: "Euskal Herrian, zorionez edo zoritxarrez, borrokak asko izan dira eta jendea ideologizatuagoa dago. Herri dinamikoagoa gara". "Bestalde, ez Estatuan bakarrik, Europan ere aintzindari garela esan beharra dago, asko dira atzerrian gure borrokaren berri izan nahi dutenak" dio Asierrek.

"Euskaldunak ideologizatuagoak eta dinamikoagoak"

Informazio bulegoak

Taldeak azken aldi honetan ekintza ugari ari dira burutzen, originalak izaten saiatzen dira diotenez, eta baita batzuetan lortu ere. "Jendearen arreta geureganatzea da gure helburua, herrietan intsumisoak daudela, eta kasu batzuetan epaitu eta espetxeratzeko zorian daudela" diote. Ekintza garrantzitsuenak epaiketen inguruko mobilizazioak izaten dira. Dena den, ekintzak egiteaz gain, Billabona eta Zizurkilen badute bestelako helbururik: "Billabonan esate baterako, beste edozein herritan bezain beste dago jendea sentibilizatuta intsumisioarekin, baina ez dugu ordea, lortu hainbeste intsumiso izatea. Beraz, jendea geureganatzea da gure helburuetako bat" dio Landerrek. Halaber informazio bulego bat irekitzeko asmoa daukate.

Andoainen, adierazi digutenez, aurreratuago daude, taldea sendoa izan edo ez, ezagutzen dituztela ematen du. Hauek ere informazio bulegoa irekitzeko asmoa daukate. Orain arte Kultur Etxean eguncan ordubetez egoteko aukera zuten, baina ez zaie nahikoa iruditzen. Otitan

ezartzeko asmoz ere egon omen dira, dena den, bulegoa uda igaro arte ez dute irekiko. Hasteko, hurrengo urtean soldadutza egitea tokatu zaien andoaindar guztiei gutunak bidaliko dizkiete bulegora hurbiltzera gonbidatuz. Azken egunetan egin dituzten manifestazioei buruz ere hitz egin digute: ez omen dira, beraien ustez, oso jendetsuak izan eta kexu dira, dena den, epaiketen aurrean mobilizatzen eta intsumisoen egoera salatzen jarraituko dutela adierazi digute.

Udalak

Gogora dezagun Andoaingo Udalak orain dela bi urte onartu zuela intsumisioaren aldeko mozioa Imanol Huiziren garaian. Eta Billabona eta Zizurkigo Udalek duela gutxi onartu dituzte mozioak. Dena den intsumisoei ez zaie nahikoa iruditzen Udalak egiten ari direna, "gehienetan ekintza sinbolikoak izaten dira", diote, "eta gainera, alderdiek Udaletan agertzen duten jarrera berbera eta indar berberaz agertu beharko lukete gero beste erakunde batzuetan. Gasteizen adibidez, baina alderdietan jerarkiak daude" dio Asierrek "eta hemen ere goikoek aginduko dutela iruditzen zaie. Hori dela eta mozioak *herriko pasadizu* baten tankera baino ez dute hartzen". "Udalak egituraketa instituzional korapilatsu horren atal bat dira eta maila horretan zerbait egin beharko lukete" dio Landerrek, "hara hor, adibidez, Diputazioek Madrilara ejerzitoarentzat egiten duten aportazio ekonomikoa, horrelako bideak bilatu behar dira, beste bide original bat intsumiso zigortuak nazioartean asilo politikoa eskatzea izango litzateke.

"Udalen jarrera sinbolikoa ez da nahikoa"

Andoaindarrek adierazi digutenez Udalak aurtengo

aurrekontuan beraientzat dirurik ez dagoela adierazi die dagoeneko, "eta dirulaguntzak ukatzea ez da, ez horixe, guri laguntzeko modu bat. Horregatik interesgarria izango litzateke Andoaingo Udalan mozio bat aurkeztuz gero, alderdiek hartuko luketen jarrera ezagutzea". "Gizartea orokorrean intsumisioaren alde dago, baita alderdi politiko gehienak ere Euskal Herrian; orduan, ze arazo dago mugimenduak duen indarra baino gehiago izateko?", hauxe da mahainguruan guztien ahotan erantzun gabe gelditu den galdera. "Estatua bere jarrerarekin gure bidea zein izan behar den ari da erakusten. Intsumisioa eskubide izanda, bide demokratikoetatik ezer lortu ezin badaiteke, beste bide gogor eta erradikalagoak har ditzagun ari dira behartzen", dio Lander Etxeberriak.

Eskubide zibilak

Komunikabideen bitartez duela gutxi ezagutzera eman den kode penala eraldatzeko egitasmoa ere derrigorrez aipatu behar izan dugu mahainguruan. Aldaketa horren arabera intsumisoak ez lirateke kartzelara joango baina beren eskubide zibilak ukatuko litzazkieke, hala nola erakunde publikoetan lanpostuak lortzea, gida-tzeko karneta

eskuratzea, langabezia kobratzea edota seguritate soziala izatea. "Horrek posturak erradikalizatu egingo ditu dudarik gabe" diote guztiek. Ildo beretik jarraituz ejerzito profesionala irtenbiderea izango litzatekeen galdetu diegu eta denek esan dute ezetz aho batez. "Ejerzittoa profesionala izanda ere, gehiengo ez litzateke joango, eta estatuak, are gutxiago Espainiak, non ejerzittoa hain errotuta dagoen eta aldi berean hain desprestigiatuta, estatuari inongo aportaziorik egiten ez dion pertsonarik ametitzen ez duenez, ezingo luke bere burua legitimatu eta ez litzateke baliagarria izango" dio Landerrek. Dena den, profesionalizazioa lortuz gero, denek ikusi dute argi intsumisoen borroka eta estrategia aldatu egin beharko litzatekeela.

Bukatzeko etorkizunaz zer pentsatzen duten galdetu diegu gurekin bildu direnei eta guztiei iruditu zaie epe ertainean Euskal Herriko gazte gehienak intsumisoak izatera iritsi daitezkeela. Utopia hitza baztertu dute gai honi buruz hitz egitean. Gizarte guztien desmilitarizazioa lortzea zaila bada ere, Euskal Herri desmilitarizatua, gutxienez, nahiko luketela esanez bukatu da gure solasaldia. Horixe da, hain zuzen ere, gazte hauen desioa eta itxaropena.



Martuteneko bidean

-ANDOAIN -

San Juan eguna. Eguerdiko hamabiak puntuan hasiko da Axeri dantza Angelusa iragarriko duten San Martin elizaren dorreko kanpain hotsekin batera. Historiaren urrunean galtzen den ohitura horrek hogeita batgarren pasadizoa biziko du ekainaren 24ean. Xe-

hetasun gehiago jakin asmoz jo dugu Iñaki Arregi, Argia Dantza Taldeko partaide eta Andoaingo semearengana. Bide batez, berak argitutakoa Juan Antonio Urbeltz, Argiako zuzendariak esana dela zehaztu digu.

“Axeri dantzak elementu iniziatiko eta erritualak ditu”

Dantzaren xedea bai dantzariak bai herritarrak disfrutatzea dela dio Iñaki Arregik

A- Noizkoa da San Juan egunean dantzatzen den Axeri dantza?

A- Axeri dantza orain 200 urte inguru egiten zen eskualde honetan, baina gerra aurretik dantzatzeari utzi zitzaion. Dantzari buruz xehetasunak jasotzen 1973. urtean hasi ginen Adunan. Orduan irrika handia baitzegoen norberaren inguruko dantzen mundua ikertzeko. Garai hartan Lizar Makil dantza taldekoak ginen, gaur egun desagertu dena, eta Bixente Olanok zenbait informazio eman zigun. Horrenbestez, 1973. urtetik hona urtero dantzatzen dugu. Urte hartan bertan Adunan egin genuen eta 1974. urtetik aurrera Andoainen. Hogeita bat urte daramagu dantza hau egiten, beraz.

“Hemengoa eta Hernanikoa erro beretik datoz, ziurren”

A- Axeri dantza Adunan dantzatu izan da eta gaur egun bai Andoainen bai Hernanin egiten da. Ba al dute parekotasunik?

A- Andoainen egiten dugunak ez dauka zerikusirik Hernanin egiten denarekin, morfologia aldetik, pausoa egiteko modua alegia, behintzat. Dantzaren edukia aztertuko bagenu, puntu amankomun dexente aurkituko genituzke, agian. Erro beretik datozela ia segurua da.



Ilentia edo Txingoa

A- Dantzak jatorria non duen zehaz al daiteke?

A- Ez. Garai batean Axeri dantza oso zabaldua egongo zen eskualde osoan. Oro har, dantzaren sorrera euskararena bezain korapilotsua da. Euskal Herria oso herri dantzaria da; agian, herri guztiak bezala. Baina beste batzuk mantentzen ez dituzten erritoak bizirik diraute guregan. Axeri dantzan egiten diren kolpeek eta jolasek sinbologia errituala dute, iniziazio erritoko sinbologia alegia, eta beraz, historian oso atzera jo behar dugu berau azaltzeko. Hortaz, ez du zentzurik dantza hemengoa ala hangoa dela esateak.

A- Esanahi bereziren bat ba al du, zerbait ospatzeko egiten zen garai batean?

A- Elementu erritualekin bat datoz

Axeri dantzan egiten diren gauzak. Bateratasun asko eta handiak daude; agian, “axeri” hitzak bazeukan zerikusirik garai batean gaur egun Axeri dantzan egiten ez den zerbaitekin. Adibidez, lehen dantzariak artabizarrak ipintzen zituzten sudur zuloetan eta su ematen zioten, eta lepo atzetik ere estopa jartzen zuten, horri ere su emanez. Bestalde, dantzan bertan badaude iniziazio errito garbiak. Adibidez, dantzaren atal bat “Orratzarena” deitzen da. Zati horretan zutik dauden dantzariak hankak ireki eta itxi egiten dituzte, makurtuta hanken artetik igaro behar dutenei bidea eragotziz. Iniziazio pasadizoa da hau. Dantzariak bere orratzarekin bakarrik igaro behar du azpitik, baina besteek eragotzi egiten diote. Erritualetan iniza-



Iñaki Arregi

tuek lurraren barrena egiten zuten bidaia irudikatzen du. Garbituta itzultzen ziren handik.

“Iniziazio erritoko elementuek diraute”

A- Zeintzuk dira dantzaren atalak?

A-Bi zati bereizten ditugu: berez Axerri dantza dena, eta Soka dantza edo aureskua. Zaharrek hala egiten zuten eta hori jaso nahi izan dugu. Axerri dantzak, blusa gorriarekin dantzatzeko denak, sei zati ditu. Lehenik, plazari bira eman eta Aitarena egiten dugu. Honek Angelusaren hasierarekin koinziditzen du, eguerdiko hamabietan hasten baita. Hori oso garrantzitsua da, urteen joan-etorriaren poderioz, jendeak jakin baitu hamabietan hasten dela dantza. Berrero pascoa egiten da, eta ondoren zortzikoa. Buruzagiak hasten du dantza, eta eskuetan korapilatuta duen gerrikoaz a-

tzean dagoenari ematen dio. Orduan lasterketa moduko bat hasten da, izan ere, dantza hastera doan amaitu duenari atzetik segitzen dio eta jo egiten du gerrikoaz, dantza egin duena bere lehengo lekura iritsi artean. Lehen, badirudi, harriak lotzen zizkiotela gerrikoari. Orratzarena da bigarren atala. Ondoren Ilen-tia edo Txingoa dator. Dantzariak ilada batean jartzen gara, beso bat aurreko dantzariaren sorbaldan eta beste eskuarekin aurrekoaren hanka helduta dugula. Buruzagia iladaren aurrean dago ilentia eskuan duela, eta gu zirikitu nahiean dabil

ilada apurtzeko. “Perra-jartzea” zatian, batzuk besteen sorbaldaren gainean ipintzen gara eta borroka moduko bat egiten dugu, denek denek aurka. Eta dorrea egiten dugu amaitzeko. Soka dantzaren txanda da gero, eta horrela bukatzen da.

A- Axerri dantza berreskuratu zenuenetik hona aldaketarik egon al da?

A- Hasi ginenetik hona gauzak heldu egin dira, eta herri guztiari zabaldu zaio dantza. Nahi duenak parte har dezake, dantzak betidanik izan duen elementu sozial hori berreskuratu nahi izan dugu, jendeak gehiago parte har dezan. Morfologia aldetik ere aldaketak izan dira. Hasieran, gauzak ez ginituen behar bezala egiten, dantza nola egiten zen gutxi gorabehera bakarrik genekielako. Dantza egiten hastean, hasiera bat eta amaiera bat ematen genion, eta pauso dotoreagoak egiten saiatzen ginen. Gaur egun baina, beste patxada batez egiten ditugu gauzak, dantzari freskotasuna eman diogu. Dantza txukun egin behar da, baina pausoa ondo ala gaizki egitea ez da hain garrantzitsua.

Herri guztiari zabaldua

A- Une honetan osasun onean dago Axerri dantza?

A- Dударik gabe. Gazteak interesatzen dira. Oraindik jende gehiagok hartu behar du, hala ere, parte. Aurten, esate baterako, 25en bat lagun elkartuko gara. Gainera, askok disfrutatuko egiten dugu dantzan, eta beraz, etorkizuna baduela uste dut.

Agurtzane Ormaetxea



1979. Aureskua

© Andoaingo Udala

-ASTEASU-

Bi baserritar gazte

Jose Antonio eta Jonek baserritik bizitzea erabaki dute



Tresneria berria erosteko elkartu dira

Makinaria berria

Denentzako nahikoa lan izaten omen da baserrian. Honela, batek ikuiluko lanak egiten dituen bitartean, besteak belarretan aritzen dira. Duela gutxi hain zuzen, "bolak egiteko makina" edo "Rota-empaquetado" deitzen den makina erosi dute Jon, Joxe Antonio eta beste hiru baserritarren artean. Tresnak nolakoak diren azaldu digutenean, nolabait esatearren, bi tresna direla esan digute: bata belarra bolatan banatzen du eta besteak, belar hori plastikoko beltz batean biltzen du.

Goizeko zazpitan jaiki, ikuiluko lanak egin, gosalduta eta belarretara. Horrela hasten dute egunero-egunero eguna, astegun nahiz asteburuetan, Jose Antonio "gaztea" asteasuarrak eta Jon Telleria larrauldarrak. Eskola berean ikasitakoak dira, Asteasun. Gela berean ez bazebiltzan ere, Jon bi urte gazteagoa delako, lagun onak egin ziren. Baserria izan dute betidanik gustoko bai bata eta baita besteak ere.

Jon baserrian jaioa da, "Larraola" baserrian. Ondo ezagutzen ditu, beraz, baserriko lanak. Joxe Antonio berriz, kaletarra da. Txiki-txikitatik hartu zuen ordea, aitaren baserrira izeba-osa-bak ikustera joateko ohitura. Argi zeukan "Gorua-Gañe"an bukatu behar zuela eta baita egin ere. Izeba oso gustora dauka, baserriari jarraipena emango dionik badago orain eta familian.

Baserrian lan egiteko era asko aldatu da garai batetik hona. Makinariak erraztu egin ditu lanak, hala ere, lan handia egin behar izaten da. "Lana gogorra baino, lotua da" diote gazte pare honek. Izan ere, astegunak, asteburuak, jai egunak, zubiak eta denak dira lan-egun baserrian. Festetan dibertitzera ateratzen direnean ere, aurretik lanak ondo bukatuta utzi behar izaten dituzte. Besteak beste, pentsatu izan dute ez zela ideia txarra izango ganadua ikulu berean izateko aukera edukitzea. Horrela, txandatu, asteburuetan inolako kezkarik gabe irtetzeko aukera izango lukete.

Berrogeina esne-behi dute eta, jakina, ez da lan makala izaten horiek jaitea. Bi egunetik behin Gurelesatik esneketaria etortzen zaie bildutako esnearen bila. Telleriak behiak ezezik, txerriak ere badauzka. Bera gurasoekin geratu da baserrian, arreba guztiak kalera ezkondu eta gero.

Ekonomiaz hitz egitean, adituek hirugarren sektorea, zerbitzuak alegia, gero eta garrantzitsuagoa dela esaten dute, gero eta indar handiagoa duela, alegia. Ekonomiaren berezko joerari fronte egin diote Asteasu eta Larraulgo bi gazte hauek eta ofizio moderno bat aukeratu beharrean aspaldiko langintza bati heldu nahi izan diote. Baserritarrak elkartzea eta tresneria erostea baina, nahiko gauza berria da, etorkizunari begira, funtsezkoa, ziur aski.



HOL - ATZ

VACSOL - WIR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT



OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA

OLAZABAL

ITURGINTZA

BEROGAILUEN INSTALAZIOA
UR BEROA
ITURGINTZA
E-G IV GASA

J.Larreta etorbidea, 35 - ☎ 37 07 18 - 30 04 66
ANDOAIN

Europa mailan nekazaritzak ez du bere garairik onena bizi. European kompetentzia ikaragarria dago eta lurak ematen dituen produktoak saltzea gero eta zailagoa da. Gure baserritarrentzat, beraz, etorkizuna ez da arrosa kolorekoa, gris samarra eta arantzaz josia baizik. Europako kompetentziari aurre egiteko, ezinbestekoa da produktu onak eta kalitatezkoak eskaintzea, eta horretarako teknologiarik berriena eskuratu beharra dago. Punta-puntako teknologia, eta lan egiteko gogoia behar da baserritik bizimodu-a ateratzeko.

Joxe Antonio eta Jonak makina bat izerdi bota beharko dute eguneroko lanetik emaitza oparoak ateratzeko. Eta behin produktua lortu ondoren, saltzea ez da negozio erraza izango, baina ilusioa behintzat, ez dezatela gal. Guk behintzat, orain arte bezala jarrai dezaten nahiko genuke.



Berrogeina behi dauzkate

Idoia San Sebastian

GYRE LAVBIDE, S.L.

STIHL[®]
Kubota
Husqvarna
AGRIA
YAMAHA

SALMENTA ETA KONPONKETAK

Motoaitzurrak - motozerrak - sasikengailuak - segak -
sulfatiluak - generadoreak - ordezoak - eranskinak



STIHL

HIDROGARBIGAILUAK

Teknologiarik berritzaileena eta aparteko kalitatea zure garbiketa lan gogorrenetarako elkaturik

Nazional 1 errepidea, Bazkardo bidegurutzea
☎ 59 01 78 - ANDOAIN

-ASTEASU-

IX. mendeko bertsolaria Pello Errota, Asteasun Mikaela lekuko

Goiko-Errotan burua azkar, mingaina bizi

“Pello Errota neretzat aurrena da etxe berezi bat, Goiko-Errota, gaur ez dagoena eta hitz egiten didana denboraren joateaz, eta nola garai batean ezagututako mundua, Asteasu hura ere badijoan..., bertsogintza bat gaur ez dagoena, eta kultura bat, memoria bat gaur ez dagoena”.

24 Bernardo Atxagari kendu dizkiogu aurreneko hitzak Pello Errotaren aitzakian garai bateko bertsolariez eta gizon-emakumez aritu ziren idazle asteasuarra, Aita Zabala, Andoni Egaña, Laxaro Azkune eta Inazio Mujikaren berriketa paperera biltzeko. Asteasuko oroitzapenen artean geratu da Mikela Elizegi, Pello Errotaren alaba. Garai batean «Mikela zintzarri» ere esaten ziotena. Bernardo Atxagari entzuna da bestalde honako hau: «Beti goatzen zait bertso saio bat zegola Zizurkilen, eta andre hura, orduan larogeita hamabost urtetakoa edo izango zan, guri iruditzen zitzaigun urte askotako emakumea... eta Pantxikaneke balkoian nola egoten zan, halako tronpeta ttiki bat belarrian jarri, eta bertsoak entzuten egoten zan...; eta nola, hurrengo egunean bezperan Zizurkilen entzundakoak hemen petrilean eserita kantatzen zituen”.

“Mikelaren memoriaren trebezia ere galdutako kultura baten lekuko izan liteke”, aipatu zuen Inazio Mujika Iraolak, eta Aita Antonio Zabalak hitz handiagoak izan zituen oraindik alabarentzat: “Hutsune bat betetzera dator, Mikela izan baitzen Pello Errotaren *Homero* umilla. Pello Errotak ez zuen izango, ezta Txirritak ere, Alejandro Magnok bezalako penarik, euren bizitzak zeinek kontutu izan dutelako”.

Gazta eta pasteekin teman, Aita Zabalak behin eta berriz egin zion tira Mikaelaren urtetako memoria biziari. Eguneroko elkarriketetan kontuetaik haruntzago ere iritsi zen. “Mingainean herdoilik gabea” esaten zion Zabalak begirune hndiz eta bere laguntzaz “Pello Errotaren bizitza” *Auspoa* saileko liburua osatu zuen. “XIX. mendeko Euskal Herria hortxe geratu da jasota”, esan zuten Gabriel Aresti eta Antonio Valverdek.



Mikaela Elizegi (1867-1967)

Baina XIX. mendetik hainbeste aldatu al da bertsolaritza?

Andoni Egaña zortzi minututan emandako erantzuna da hitzaldi saio hartatik ateratakoa. “Hainbeste aldatu al da? Itxuraz bai. Baina Pello Errotaren bizitza irakurrita, alaba Mikelak Aita Zabalari kontatuta, konturatu naiz bertsolaritza, bertsogintza bera, ez dela hainbeste aldatu”. Eta puntuz puntu azaldu zituen oraingo




LANBIDE EZBERDINEN
ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA



Altzariak

KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELE. 59 07 61

eta orduko parekotasunak: "Gaur egun bertsolariak Euskal Herri osokoa behar du izan. Pello Errota ere uste baino urrutirago iritsi zen; Jose Bernardo Otañorekin Elizondon izan zen. Donostiako antzokian. Azpeitiako sariketetan, eta Argentinako joan-etorria ere egin zuen Asteasuko Goiko-Errotako Pellok, hango euskaldunek deituta. Atera zen, bada, bere ingurutik, eta ibili zen munduan zehar. Bestetik, bizikera bera, bere lanak behartuta, irina banatzen

alegia, alde batetik bestera ibili behar izate hori ere gaur gertatzen da, gaurko hainbat bertsolariri ere gertatzen zaio, eta lehen orain bezala horrek ematen zion plazaz plaza ibiltzeko aukera. Azkenik, sariketei buruz hitz eginez, esan orduan ere sestrak eta kalamitak sortzen zituztela sariek".

Ezberdintasunak ere aipatu zituen: "Gaur gertatzen ez dena zera da: lehen bertsolariak edozein tokitan botatzen zuten ateraldia, gaur egun ez bezala. Azkar pentsatu eta azkar esan". Horrelako ateraldi asko aurkitu ahal izango ditu jakin nahi duenak Mikaelak Pello Errotaren bizitza gogoratzen duen liburuan, hor aurkituko ditu Pello Elizegi Maizen 79 urtetako bizitzaren pasadizuak (1840-1919).

"Aurrerakoia eta ezkerrekoa zen estiloan" dio Andoni Egañak "aurretik eta ezkerretik hasita betetzen zuten bertsoa Pello Errotak, eta gero errima egin eta gainera azken puntua ere aurkitzen zuen". Gaur



Hizlariak

alderantziz egiten da. Txikiko egiturak erabiltzen zituen, gaur egun galtzen ari dena. Estilo bat sortu zen Pello Errotarekin eta Joxe Joakin Mitxelenak ere erabili eta eman zuen ezagutzera. "Gaur egungo bertsolari batzuegana ere iritsi da" esan zuen.

Bertsolarien leku partikularra

"Deslekua zen XIX. mendean bertsolariaren leku partikularra" esan zuen Bernardo Atxaga asteasurra. "Zenbateraino ez ote duen egin-kizunak berak bertsolaritza aldatu?" bota zuen. Bertsolaritza pentsatzen zuena Txirritak behin hala kontatu omen zuen:

"Etxe maiorazgo nintzen tokamentuz baldin serbitu banu aita pulamentuz nere bizimodua beti dabil kantuz despatxatuko naute ez banabil kontuz".

Bertsolari gazteen ortodoxia

Bertsolari gazteen ortodoxia aipatu zuen aldaketa horren harira Bernardo Atxagak, nola gaur ez duten deslekurik, eta hori aldaketa handia den bertsogintzan. Aldaketa-unea ere zehaztu zuten lau gizonen artean: gerraostean Donostian izandako saio hura, Txirritaren lekua Baserrik hartu zueneko, eta gizartea bertsolariri gauza berria eskatzen hasi zenekoa: "eskenatokian egin dezagun lana..., eta estilo berria horrekin".

Asteasuko Kultur Etxean, XIX. mendeko bertsolaritza apur bat ezagutzeko aukera izan genuen, nola aldatu den ikusteko, hala nola, gure kultura eta gure memoria. Bertsogintza aldatu den eran, aldatu da entzulea. XX. mendean ikusi dugu bertsolaritzak izaera berria duela.

"Ez al zen ikaragarria Mikaelak berak, emakumea izan eta bertsolari senarekin, plazaratu gabe, joandako garaiez kontatutakoa?". Hona hemen Mikaelaren jenioaz eginiko erreflexioa. Pello Errotari egin beharreko omenaldia zela eta, gorabeheraren bat tarteko, udazkenean egin beharrean, hurrengo udarara atzeratzea erabaki zuten 1965ean. Berri hau Aita Zabalak eman zion Mikelari, "badaki eguraldiaren segurantziaz ez dela udazkenean eta...". Haren erantzuna tximista bezain bizia izan zen: "Ezta udan atsoaren segurantziaz ere!!!".

Amaia Etxezarreta




ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 TOLOSA
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 ANDOAIN

BENITO

**HARATEGIA
URDAITEGIA**

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA

-ANDOAIN-

Nazioarteko V. zikloturismo klasika aurten ere euripean

Espero baino jende gutxiagok hartu zuen parte



Ez zen giro

Euriak eta parte hartze murrizagoak ez zuen, hala ere, Leizaur Zikloturismo Taldeak urtero antolatu ohi duen klasika, Gipuzkoako jendetsuena eta hobekien antolatutakoa izatea galerazi. Beste berrehun lagun espero bazituzten ere, 503k hartu zuten parte; gipuzkoarrak gehientsuenak, 3 iparraldeko eta gainerrakoak Bizkaia, Nafarroa eta

estatuko beste txoko batzuetakoak. Partehartzaile gazteenak 13 urte baino ez zituen, zaharrenak berriz, 70, horien artean lau emakumezko baino ez. Ibilbidea betikoa izan zen: Andoaindik abiatu, kostaldea, Urola bailara, Goierri eta Tolosaldea zehar-

katuz 122 kilometro egin, eta Andoainen bukatu. Lau ordu pasatxo eman zuten txirrindulariek errepidean, batzaz beste 35 km. orduko abiadan. Klasika honek badu berez berezitasunik, alegia, Gipuzkoan egiten diren guztien artean kontrolatua den bakarra da, tropela elkarrekin irtetzen da eta ibilbide osoan zehar txirrindulariak elkarrekin

mantentzen saiatzen dira, sakabana ez daitezen, aurrekoen eta azkenengoen artean lau kilometrotako tartea dagoelarik. Horrek badu bere arrazoia, izan ere, lasterketa hain jendetsua izanik. Ertzainak berak behartzen ditu kontrol hori ezartzera. Elkarteko lehendakaria den Antonio Gómezek klasika honen antolaketan onena dela esatean, ez da harrotasun-izpirik bere hitzetan somatzen, izan ere partehartzaileek horren berri ongi baino hobeto eman dezakete. Beste inon ez bezala gainera, klasika honetan sari ederrak jasotzeko aukera izan ohi dute parte hartzaile guztiek.

Ibilbide errezegia

“Bost urtetan ez dugu lortu 700 lagun baino biltzea, eta hori aurrenekoan izan zen” esaten digu Antoniok erronka hori egunen batean gainditu nahiko balute bezala. Arrazoiak honakoak izan daitezke: “Orain txirrindulariek mendira jotzeko joera hartu dute batetik, eta

EROSO, S.L.


Gas eta Berogailu Instalakuntzak
Gas Naturala, Propanoa eta Hirikoa

ZURE NEURRIKO AURREKONTUA
EGINGO DIZUGU

DEI ONDOKO TELEFONO HAUETARA:

DONOSTIAKO BULEGO NAGUSIA: ☎ 39-11-05

IRUN-HONDARRIBIAKO ORDEZKARITZA: ☎ 62-18-64





Irteera-unea

bestalde, iruditzen zait ibilbidea askori arinegia iruditzen zaiela, txirrindularia ongi samar ibiltzen hasten denean beste eragingarri batzuk behar izaten ditu eta gainera, lasterketan kontrolatuta joan behar izatea ere, behar bada, ez da oso erakargarria". Hain zuzen ere, ahalik eta jende gehienak parte har zezan bururatu zitzaizen horrelako ibilbide erraza egitea, luze samarra baina erraza.

1980ean sortua

Orain dela hamalau urte sortu zuten kluba, urte haietako zenbait txirrindulari profesional andoaindarren ekimenaz. Garai onenetan 125 bazkide izatera iritsi dira, orain batetik, mendiko modak eraginda eta bestetik, txirrindularien artean errepideetako istripuak direla eta, kopurua 100era jaitsi da eta honez gain klubak mendiko bizikleta saila sortu du.

Garai batean "Jose Luis Miner memoriale" egiten zen Andoainen. Nazioarteko klasika hori egitea bururatu zitzaizenean "gauza handiren bat" egitea zekuten Leizaurkoek buruan, zenbait erakunderen laguntzarekin, "Bilbokoaren antzekoa" dio Antoniok. Laguntza gehienak ukatu egin zitzaizkien eta Andoaingo Udalaren laguntzaz burutzen den hau bost urtetan Gipuzkoako jendetsuena izaten jarraitzea lortu dute. Bestalde, ia aintzindariak izatearen ohorea ere gelditzen zaie, honen aurretik beste batzuk ere egin arren, Andoiangoaren ondoren hasi baitziren ugaltzen.

Gaur egun Leizaurkoak 30 irteera inguru egiten dute urtean zehar

errepidean eta 12ren bat mendian. Denboraldia bukatzean errepidean ibili ohi direnentzat klasika antolatzen dute eta mendiko bizikletazaleentzat "Leizaur zirkuitoa" deitzen dutena burutzen dute. Azken honi izugarritzko harrera ona egin diote zaleek, 150 partaidetik ia milara igaro baitira sei urtetan.

Zikloturismoa

Antonioren ustez zikloturismoa jende guztiak egin dezakeen kirola da, "norberaren ezaugarrietara egokituz, jakina" gaineratzen du. Txirrinduak eskaintzen dituen aukeren artean honako hauek aipatu dizkigu: "paisaia eta herri berriak ezagutzeko aukera ematen dizu, baita lagun berriak egiteko ere, eta gainera kirol guztiak bezala ona izateaz gain, merkea da". Txirrindulariek aspaldi honetan bizi izaten ari diren *psikosis*-ari buruz ere hitz egin digu Antoniok, izan ere gero eta gehiago dira bizitza errepideetan galtzen duten txirrindulariak, "kotxe-gidariekin edozertarako eskubidea daukatela uste dute, eta lehenetasuna izan arren, ez dira konturatzen bizikleta gainean doana dela ahulena, baina hori hemen bakarrik gertatzen da, lastima!" dio "errepideak ere penagarri daude bizikletan ibiltzeko".

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Zaharrak

-ANDOAIN-

Soldadutzatik ihesean

1876. urtean Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban Foruak deuseztatu zituen legea ezarri zen. Deuseztapen horrek euskal gaztediari garrantzi handiko berrikuntzak ekarri zizkion.

Legediak inposatuta Andoaingo gaztedia, Euskal Herri osokoa bezalaxe, derrigorrezko soldadutza egitera behartu zuten. Honenbestez, Behe Erdi Arotik indarrean zeukaten ezentziarako aukera galdu zuten. 1877. urtetik aurrera Andoain eta Sorabillako gazteak, penintsulako gainontzeko lurraldeetako gaztediaren antzera, espainiar ejerzitoaren lerroak osatzera abiatu zitzaizkigun.

XIX. mendeko soldadutzaren inguruan Errenplazuetako Lege-di anitz eman arren, araudi desberdin horien edukiak aztertu ondoren, komenigarria litzateke adieraztea lege batetik bestera aldaketa sakinik ez zela egon.

Errenplazuak

Idatzi honen bitartez ezalduko dugu errenplazuak osatzeko garaian orokorrean zein prozedura jarraitzen zuten.

Lehen urratsak Espainiako estatuko Udalerri guztietan urtarrila eta apirila bitartean ematen ziren. Hasiara batean hemeretzi urteko gazteekin osatzen ziren zerrendak, udal errolda eta jaiotze liburuen laguntzaz. Alegazio eta ezentzioen txanda zetorren gero, eta haren ondoren soldaduen sailkapena. Horren arabera gazteak hiru multzo nagusitan banatzen ziren: zozketa zitezkeen soldaduak, ezentzioak zituztenak (ezentzio osoa edo denboraldikoa), eta iheslariak.

Iheslari eta zozketa zitezkeen soldaduekin zozketa egingo zuten kazara eramateko. Han zeudela zenbaki baten arabera eta ejerzitoaren beharrak ikusita, norakoen banaketa egingo zen.



© ARGAZKI AKTOSAS

Euskaldun bat Kubako gudan (1868-1878). "Tercios Vascongados»

28

Izango duzu, ziur, ezagutzera ematea merezi duen aintzinako argazki edo erretraturen bat. Argazkiarekin batera bidaliezaguzu azalpen txiki bat idatziz.



*Jabier
Traola*

Harategia - Urdaitegia

ETXERAINOKO
BANAKETA
ZERBITZUA

Kale Berria, 5

☎ 69 19 32

☎ 69 35 04

ASTEASU

**BILABONAKO
EUSKALTEGIA
IKASTARO TRINKOA
UZTAILEAN**

-Hizkuntz eskakizunak (P.L.)
-Alfabetatzen
-EGA
-Mintza praktika (maila guztiak)

Matrikula epea:

*Ekainaren 20tik, 29ra

*Arratsaldeko 6tatik, 8tara

Errebote plaza - ☎ 69 25 36

Zerbitzu militarre- kiko jarrerak

Egoera berri horren aurrean batzuk ados agertu ziren, beste batzuk harritu egin ziren, etsipena sentitu zuenik ere izan zen, eta baita aurkako jarrera agertu zutenak ere. Aurka egon ez arren, soldadutzara ez joateko ahalginak egiten zutenak ere asko ziren diru-sari ederrak emanez, 2.500 pezeta hain zuzen ere.

Ordain-sariak, besteak beste, gazteen egoera ekonomiko-soziala aztertzeke aukera eskaini digu, argi ikusten baita merkatari, pelotari eta aprendizek baino ez zutela horrelakorik ordaintzeke aukera. Nekazari, harotz eta okinek nekez ordain zezaketen. Beraz, herri xeheak soldadutzari aurka egiteko bide bakarra ihes egitearena zuen, eta aberatsek berriz, ordain-sariak ematea.

Andoaingo gaztediaren artean iheslariak XIX. mende bukaeran urtero eman ziren arren, bi epealditan gertatutakoa aipatuko dugu, guztiz adierazgarria baita.

Alde batetik derrigorrezko soldadutza ezarri zen lehen urteetan



Don Karlos bere ofizial eta soldaduekin

eman zen iheslarien kopuru handiena eta bestetik, 9eko hamarkadan. 1877-1878 urteetako errenplazuetan iheslarien kopurua zozketatu ziren gazteen %25a izan zen. Beraz, lau gaztetatik "ausart" baten jokabidea soldadutzara ez joaterena izan zen.

Aurkakotasun nabaria hau 90. hamarkadara arte ez da berriro nagusi izango. 1896-98 epealdian iheslarien kopuruak %45a osatu zuen: bi gaztetatik batek soldadutzari uko egingen zion. Datu horiek berez adierazgarriak izanik, urte horietan eman ziren ordain-sariak gehitzen badizkiegu, kopurua guztiz esanguratsua izango da, %60-ra iristen baita.

Argi gelditzen da honenbestez, garai horretan soldadutza egin behar zuten gazte andoaindarren jarrera aurkako zela nabarmen, ordain-sariak ordaintzen zutenek eta iheslariak konfiantza hartuz gero.

Iheslariekin a-maitzeko bi hitz gazte horiek hartzen zuten ihesbideari buruz. Itsa-sosteko bidea hartuko zuten gehienek Argentina, Uruguay, Puerto Rico eta abarretara. Hala ere,

gazte asko ere gertu zegoen Frantziako Errepublikarako bidea hartzeke, ordu gutxi batzuetan muga igaroz.

XIX. mendeko azken urteetan soldadutzaren inguruan kontrako erantzuna egon izanak ere, ziur aski, izango zuen zerikusirik 98ko Kuba eta Filipinetako gudarekin. Espainiako inperioaren gatazka kolonialaren aurrean andoaindar gazte gehienek beren aurkakotasuna ahal izan zuten moduan adierazi zuten. Nahiz eta kolonia horietan andoaindar batzuk borrokatu, egoera hura salatu zuten gazteek asko izan zirela ezin daiteke uka.

Gorka Alijostes

LAGUNAK

KARROZERIA

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

EGA S.A. ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIKOAK
HOZKAILUAK
TXAPA ETA PINTURA

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

Orremendi
Kirolak

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 - ANDOAIN

Munikost

LIBURDENDA
PAPERDENDA

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN

-ZIZURKIL-

Euskal Herriko musikaren adaskak zorrozten

Puntako taldeak, askotxo Euskal Herrian

Zizurkilen “Maiatza Saltsan” izenburupean antolatatu zen kultur saltsadun ekitaldiez josiriko hila-betean egungo euskal musikari buruzko mahaingurua

burutu zen. Joseba Tapia trikitilaria; Pello Karrere; Olatz, Xaximiku taldeko partaidea eta Jama Larreburu izan ziren bertan.

Entzulegoa dexente gaztea, tartean helduren bat edo beste baziren ere, guztira berrogei lagun inguru bertaratu ziren mahaingurura. Entzulegoaren partehartzea lekuko, badirudi egun, hein handian bederen, musikak gaztedia soilik erakartzen duela.

Besteak beste, lau partaideek kontserbatorioei buruz luze

ihardun zuten. Dirudenez, denak ere ez daude ados kontserbatorioek daramaten dinamikarekin. Guztiz bestelakoa behar omen luke: “Kontserbatorioetan hutsune larriak daude. Ez dago ausardiarik gauza berrien bila joateko. Betikoarekin geratzen dira. Molde berdinak, egitura berdinak... Modu horretan lasai-lasai... Gaur egungo musika ez dute aipatu ere egiten” dio Joseba Tapiak. Bestalde, kontserbatorioetan lortzen diren tituloak klaseak emateko soilik balio dutela adirazi zuten: “Zerbait izango bazara, aparteko lan bat egin behar duzu” aitortu zuten. Tartean, giro herrikoia mozten dutela, oso giro hotza eta akademikoa dela bertakoa, musikari profesional gehienak kontserbatorioiko titulaziorik gabeak direla eta abar luze bat bota zuten “musikara gerturatu diren etxe ofizialei” buruz.

Musika ikastetxeetan

Egun musikak zer nolako garrantzia duen eta zenbaterainoko garrantzia ematen zaion ere aztertu zuten. “Badirudi, oro, rock-aren errekatik doala” zioen Olatzek. Dudarik ez da ez, ur handiak daramatzen erreka horrek busti gaituela ia guztiak. Halere, gustokoa egiteari eman zion garrantzi handiena. Beraz, beste hainbat errekatxo sortzeak ere balioko duenaren aburupenaz dihardute Xaximikuko taldekideek.



Mahainguruko partaideak

Honez gain, guztiek esan zuten musika, betidanik, garrantzi txikia eman zaion arloa izan dela. “Irakaskun-tzan gero eta garrantzi handiagoa ematen zaion arren”. Garbi dago noski, pedagogian ezinbestekoa dela musika lantzea. Halere, hori oso ikuspuntu berria da, izan ere, beti egon izan da musika txokoraturik eta bigarren maila ba-

tean sailkaturik. Musika berari baino garrantzi handiagoa eman dio gizarteak bestelako ikasketei, besteak beste, ingeneritza, medikuntza, irakaskuntza..., nahiz horrelako beste ogibideri ere. Garbi dago, ondoren praktikan izan zaion begiruneari zor zaiola jarrera hori. Halere, arestian aipatu lez, heziketan, haur baten heziketan bereziki, eta sikomotrizitatea lantzeko, musika ezinbestekoa da. Beraz, horretaz ohartzea eta bere garrantzia ematea ere ez da gutti.

“Musika orain arte txokoratuta eskolan”

Ospea nola lortu

Musika talde batek edo musikari bakarlarik batek ospea lortzeko zein bide jarraitu behar duen izan zen entzule baten kezkarik nagusia, eta jarraian, ildo horri eutsi zitzaion ia amaiera arte. Duda zipitzik ere ez, Euskal Herrian musika taldeak eltze batean babarrun aleak baino gehiago daudela. Egoera hori lekuko, are zailagoa da arrakasta lortzea, jakina. Lau musikariek diotenez, “horiek, ziurrenik, ez ziren musika egiten hasiko, ondoren



Joseba Tapia
eta Olatz

hortik biziko zirenaren ustez, saia-
tzeak eramaten zaitu arrakastaren bi-
dera”.

Beraien ustez, norberak bere
burua gai ikusten duenean, ausartzen
da plazarako urratsak ematen. Gero
urte batzuk igaro ondoren hasten omen
dira lainoetan hegan. Eta jakina, jaun-
goikoak direlakoan ibiltzen dira. Ha-
lere, arrakasta lortzeko biderik ezin
izan zuten zehaztu. Guztia zortearen
esku omen dago. Gertatu ohi da ha-
mar urte kantari igaro ondoren, eze-
zagunen munduan murgildurik egon
ondoren. bat-batean, kasualidade
hutsagatik, entzute ezin handiagoa
eskuratzea.

**“Talde onak ere,
aukera hobeak
diska-etxe
ezagunetan”**

“Asko sufritu ondoren, agian,
abestitxo batek alda dezake zure bizi-
tza. Hori oso zaila da jakitea” dio
Jamak. “Ez pentsa, ordea, Euskal He-
rriko egoeraz ari garenik, kanpoan ere
gauza berbera gertatzen baita” gaine-
ratzen du Peiok. Eta ezin aipatu gabe
utzi, komunikabideen eskua: komu-
nikabideek sortarazten duten oihar-
tzuna arlo horretan oso da garrantzi-
zkoa da, honen lekuko direlarik
hainbat eta hainbat musika aldiz-kari.

irratietako programa nahiz telebis-
tako.

Komunikabideez landa ere,
badira bestelako mamutzar galantak
ere, esaterako, produktoreak dire-
lakoak. Partaideen ahotan kanpotik
datorren mugimendu bat omen da pro-
duktoreena. Halere, Euskal Herrian
merkatua oso txikia denez ez dute
inolaz ere Euskal Herritik at betetzen
duten lan berbera burutzen. “Gaine-
ra, euskaldunak kaska gogor sama-
rrak ere ba omen gara eta...” gaine-
ra zuten musikariek.

**Diska-salmentak
asko jaitsi dira
Euskal Herrian**

Eta amaitzeko, Jama Larre-
buruk diska-etxeei buruz bi hitz esan
zituen. Jama, diska-etxe bateko lan-
gilea dugu, eta bertako esperientzia
guztiak kontu ezin izan zizkigunez
erabat laburbildu zuen: “Lehenik eta
behin, maketan bilketa lanetan ari-
tzen gara. Maketan jaso ondoren, en-
tzun, aztertu eta hautaketa-lanari eki-
ten diogu. Hautaketa lanak egin on-
doren taldekideekin hitz egiten dute
eta zuzenean, zenbait gauzetan ados
jarri ondoren, grabaketa-lanei ekiten
zaie”. Diska bat garatu ondoren, ko-
munikabideen alorra ahalik eta hobe-
kion lantzen omen dute.

Maidar Barandiaran

EUSKALDUNA



Edaritegia

Bilar-jokorako aretorik
aproposena!!

Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47 BILLABONA

PINTXOAK
OGITARTEKOAK
GOSARIAK

ESPEZIALTATEAK:
PERRETXIKOAK
LABEAN
ETA NAHASKIAK



Iturri-Ondo

JATETXEA

☎ 69 13 31

ASTEASU



COPILASTER
BERREGINTZA ZERBITZUAK

FOTOKOPIAK

- Txuri beltza
- Kolorea
- Planoak

AZALEZTAPENAK

PLASTIFIKAZIOAK

TEXTU TRATAMENDUAK

OIHAL ESTANPAKETA

TELEFAX ZERBITZUA

ERROTULAZIO ERANSGARRIA

Agustin de Leiza, 25 - behea
Telf./ Faxes: (943) 300 117
20140 ANDOAIN

Begi argia



● Xabier Lasa

FUTBOLAREN ARRUNTKERIA

Oroimenera datorkit Mao Tse-Tungen esana, erlijioa herriaren opioa zela alegia. Aktualiza genezake, eta bota: bizitzaren odol txar guztiak ahaztu nahian, teleprogramatzaileek efektu narkotizatzaile eta alienanteak bilatu dizkiote futbolari.


Ez noa halere hortik, futbolaren telediktadura aisago kuestiona litekeenaren bidetik baizik: saldu nahi diguten *espektakuluaren* zentzuarekin. Romariorien area barruko axerikeria eta Landrupen *dribble* deabruzalearen noizbehinkako salbuespenak kenduta, gaur egun futbol profesionalak ez dauka artelanetik deusik. Kirol ikuskizunez soilik gozatzen baitut arte bihurtzen denean, edota kirolak bizitzaren hainbat aspektuekin identifikatzeko bidea ematen didanean; eta hori ez da futbolaren kasua.

Haizearekin puzten den baloia telebistan ikusi aldiro, interes bakana, probetxuzko lezorik atera dezakedanean sortzen zait. Erretinetan geratzen diren ondorioak, ikasgaiak... dira. Hara. Mundialaren aitzakian, Estatu Espainiarreko selekzioaren gorabeherekin erreskatatzen ditut zenbait interpretazio. Adibidez, odol patriotikoa igota dagoenean, zein itsukeriaz hartzen diren gauzak. Amonaren sasoiko Asensi, Juanito zena, Migueli eta abar zakilpotroen futbola, kalitatezkoa zen garai hartako prentsa eta kritikoen zat. Katakunbetako joku harek, gaur, E.T.B.ko ordu pilo alper-galtzeko bestetarako ez du zerbitzen. Aita Clementeren Corte Inglesez txakteratutako mutilekin ere ikus daiteke, pertsona publikoen zango eta duintasuna nola bihur daitezkeen objektu komertzial; idolatrazioaren dizdirak nola txotxolotu dezaketen bat. *“Vamos a comernos al mundo!”*.

Lehenago errekreatuko naiz, Berasategiren jokuerari alai, arriskatzaile eta efektiboarekin, baita pilotari eragiten dion stresarekin, bere *driveren* magia xelebrea eta guzti. Bere joku-jarrerarekin, mezua jaurtikitzen digu: kirolaren edertasuna ez dator, adibidez, futbolaren izakera kontserbatzailearekin, munduko kirol bakarra baita atezainaren ondoan hamar defentsa jarri eta emaitza onik ateratzen uzten duena. Artea eta espektakularitate, arriskulari, menturalari, konformagaitza eta ausarten adiskideak dira. Kirolean bezala, bizitzan aplika daitezkeen kopla...

Bizitzaren beste metafora polita, esate baterako, pilotak dakarkigu: naturak Galartza pribilegiatu du hainbat kalitate fisiko emanez, baina sikikoetan makal geratzen da. Zainetan bizitu behar da kirola, zainetan! Ordea, indarrez limitatuta dabilen Errandonearen kemenak eta eskuetan daukan pittinari zukua grinez ateratze horrek, ez du preziorik. Eredu berbera eskeintzen digu Berzinek eta bere esibizioak, Indurain kontserbatzaile eta mutur zozotuaren gainetik.

Postdata. Pilotaz ari garenez, arren: hurrera, 78ko España-Brasil 45 teleminutu kendu eta Segura-Amezketako pilotari gaztetxo saiatuici dedikatu.



“AUTO-
STOPEKO
IPUINAK”
PAKO ARISTI.
ELKAR.

Urrestillakoaren azken lana duzu honako ipuin liburua. Hogeita hamar ipuin bildu ditu bertan, inguruko pertsona guztien bizitzaren gorabeherei so eginez. Aristi bera da ingurunearen begirale eta ipuinen sortzaile nahiz eta ipuin bakoitza pertsonaia batek izenpetzen duen. Gizarteko oso jende desberdinen sentimenduen bilduma da kontakizun guztien emaitza.



“BITTOR
AIAPE”
BITTOR
AIAPE. IZ.

Nafarroako Kaseda herriko hamahiru urteko gaztearen kantez osatutako diska ezagutzea interesgarria gerta dakizuke. Nafarrak hogeiki kanta ditu dagoeneko idatzita eta Gabriel Arestiren zenbait letra musikatuta. Musika estilo ezberdinak aurkituko dituzu diskan.

MENDI
AUTOESKOLA




AGUSTIN DE LEITZA, 11 - ☎ 300604
20140 ANDOAIN

PAPERDENDA

ERNAITZA

LIBURUDENDA

Zumea kalea, 2
☎ 59 24 59
ANDOAIN

 **BRONTE**

ZENTRU OPTIKOA
BILLABONAN

ZURE IKUSMIENA GRADUATZEN DUGU
KONTAKTU LENTEK
GORRENTZAKO APARAILUAK

Kale Nagusia, 28 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA
TOLOSA-DONOSTIA

Anjel Ugarte: "Petit Paris deitzen zizaion garai batean Billabonari"

Makina bat pilotari euskaldun ibili da munduan zehar diren frontoietan beren abilitadea eta izerdia kantxaren gainean jarritz. Horieta bat du Anjel Ugarte, eta ez makala! Ikusleak oso gustokoa zuen, bere burua lurrera bota, jauzi egin eta airean ibiltzen zelako. Pilotari esker Rocky Marciano bezalako pertsonaia ospetsuak ezagutzeko aukera izan du. Duela hiru urte itzuli zen Billabonara eta han duen txokoa harrapatu du du loreak zaintzen.

Petit Paris deitzen omen zioten garai batean Billabonari, familia gehienetan pilotariren bat zegonez, atzerritik ekarritako edari, tabako eta txanpon desberdinekin ohituta zeudelako. Aitona eta aita zesta puntako jokalaria izanik, Anjelek ere horri eutsi zion.

Billabonan bada pilota joko berezi bat, oraindik bizirik dirauena: errebotea. Erretiratu arte aritu da horretan eta beti bihotzean eraman du, baina "joko erromantikoa" dela dio, hortik ez dagoelako bizitzerik. "Ikusi nuen lehen errebote partidua erretiratu eta herriko jaietara etorri nintzeanean izan zen, aurreko guztietan ni jokalaria izan bainintzen", adierazi digu zestalariak.

Xisterarekin atera du bizitza aurrera Ugartek. Hemezortzi urterekin Kanarietara abiatu zen lehenengo kontratu profesionalarekin. Han eskuratu zituen lehenengo garaipen eta garaikurrak. Kanarietan anekdota bitxia gertatu zitzaion. Honela kontatu digu: "Aita hil berri zela joan nintzen eta lutoko traje beltza eraman nuen soinean. Handik denbora batera ezezagun batek hileta elizkizun baterako eskatu zidan eta ez nuen traje hura berriro ikusi itzuli nintzen eguna bitartean. Omenaldi partiduen ondoren jendetza handia bildu zen kaian, nire inguruan; horien artean trajea eskatu zidana etorri zitzaidan agurra ematera, nire trajea jantzia zuela eta trajeaz ezer aipatu gabe! Ez nion ezer esan".

Soldadutza Zaragozan egin ondoren, Mallorca eta Ipar Euskal Herriko pilotalekuetan aritu zen itsasoz bestaldera jo baino lehen. Miami joko denboraldia laburra zen eta Habanara joaten zen tartean. "Kuba Karibeko perla zenean", dio irribarrez. Gero, Estatu Batuetako Tampa, Daytona, Palm Beach eta horietako frontoiak zabaldu zirenean aukera gehiago izan zituen jokatzeko. Mexicon eta Italian ere aritu zen. Guztira hogeitau urte iraun zuen pilotari, Amutxastegi, Larrañaga, Txurruka. Tximela eta Ugarte bera ere izarrak ziren garaietan.

Erretiratu ondoren zenbait lanbidetan aritu zen: lehendabizi jate-txe bat jarri zuen Daytonan, gero kabaret bat, aietiko argazkiak egiten zituen konpainia baten ordezkaria izan zen Dominikar Errepublikan... "Rocky Marciano, Esther Williams, George Hamilton eta beste artista ospetsu asko ezagutu nituen". Arrakastaren apar eta distirarekin batera porrotaren une latzak ere ezagutu zituen, ordea. "Florida Sund' izeneko aldizkari sozial batean sartu nintzen sozio kapitalista modura, baina hankaz gora joan zen". Bere alde on eta txar guztiekin, bizitza ederra izan duela aitortu digu eta berriro hasiko litzatekeela hutsetik.

Emakumezalea

Aita pilotaria zelako jaio zen Brasilen, Sao Paulon, baina hamaika urte zituela, gerra erdian, Billabonara etorri ziren, gurasoen herrira. Hiru aldiz ezkondu zen, nazionalitate ezberdineko hiru emakumekin: amerikarrak, filipinarra eta venezuelarra. Bi alaba ditu, Estatu Batuetan bizi direnak. Ehiza eta pintura ditu gustoko zaletasunak. Eta emakumeak. "Emakume bat baino gauza bakarra dago hobea: beste emakume bat".

(Joxemi Saizar. Egunkaria maiatzak 25)

Ez dakit Emakumeen Askapenerako Mugimenduak zergatik nardatzen nauen hainbeste.

Emakumezkoek eragin erabakiorra izan dute nire bizitzan.

Oro har, mirestu egiten ditut, beraietaz gozatu egiten dut arraza bat izango balira bezala, gustatuta zauden txakur bat beste espezie bat den bezalaxe.

Ez dut hau mesprezuz esaten, miraz baizik, zaldi arraza on bat estimatzen duenak bezala.

Arrautzak zapalduz bezala ibili behar da pertsona horiek ez iraintzeko, feminista militantek hain dira minberatiak, beti defentsiban.

Zergatik arduratzen dira hainbeste?

Henry Miller (1975)

(Emakunde aldizkaria)

Erredakzioan itzulia

Elebitasunak heriotza eragiten dio kultura ahulari

Erroka handia da inperialismo kulturala eta diskriminazioa eragiten ez dituen harreman kultural sistema berria aurkitzea. Diskriminazio positiboa egin behar da kultura gutxituen faboretan eta nazioarteko babes-mekanismoak ezarri kultura txikiak babesteko. Hizkuntzen arautegiari dagokionean, Katalunian katalanera izan beharko luke hizkuntza ofizial bakarra, kultura txikia heriotzera behartzeko modu bat baita elebitasuna. Madrilen Kultura ministeritza bat existitza ere ez da logikoa, kulturaren arloa komunitate bakoitzaren esku egon beharko luke.

Felix Marti,

Kataluniako Unesco-ko zuzendaria

(Diario Vasco, ekainak 10)

Erredakzioan itzulia

Hots,hots!

JAIOTZAK

ANDOAIN: Olaia Chouza Lorente. Maiatzak 21.
Alazne Lekuona Tolosa. Maiatzak 25.
Naiara Alvarez Moreno. Maiatzak 30.
Ainara Pizarro Pinilla. Ekainak 2.
Imanol Maiza Usarralde. Ekainak 7.
Sara Ortega Ramos. Ekainak 6.
Cristian Urrutia Pereira. Ekainak 11.
Leire Urrutia Pereira. Ekainak 11.

ASTEASU: Iñigo Azkue Lizeaga. Apirilak 27.
Lierni Antza Iztueta. Ekainak 9.

BILLABONA: Eider Urkiola Ezeiza. Ekainak 5.

LARRAUL: Nagore Urbieta Etxeberria. Apirilak 12.

ZIZURKIL: Joseba Arrate Colomo. Maiatzak 16.
Xabier Iraola Mangalo. Ekainak 4.

EZKONITZAK

ANDOAIN: Nicolas Martin y Lanchas eta Maria del Carmen Infante y Delgado. Ekainak 4.

BILLABONA: Luis Mari Otegi Goikoetxea eta Edurne Galarraga Garmendia. Ekainak 11.
Javier Gómez Martínez eta Belen Ezeiza Ibarbia. Ekainak 11.

ZIZURKIL: Francisco Javier Carrasco Barriga eta Eulalia Maria Gómez González. Maiatzak 28.



GOIAN BEGO

ANDOAIN: Maria Cruz Zarauz Garmendia. Maiatzak 28.

ASTEASU: Agustin Otaegi Durandegi. Ekainak 7.

LARRAUL: Jose Inazio Larrarte Garmendia. Ekainak 1.

ZIZURKIL: Manuel González González. Maiatzak 16.
Agustin Núñez Márquez. Ekainak 3.

SUKALDE TXOKOAN



Pilar Imaz.
Pantxikane Elizondo
jatetxeko sukaldaria.
Zizurkil.

BARAZKI MENESTRA

Osagaiak:

- Patatak.
- Azenarioak.
- Porruak.
- Lekak.
- Zerbak.
- Ilarrak.
- Ziazerbak.
- Orburuak.
- Azalorea.
- Urdaiazpiko tako txikiak.
- Arraultza egosia.

1- Ura irakiten jarri olioia eta gatzarekin.

2- Lehenengo patatak, azenarioak eta porruak bota. Gainerako barazkiak banaka egosita eta batere urik gabe egon behar dute.

3- Hasierako barazkien gainean beste barazkiak jarri, bakoitza bere txokoan.

4- Azpil edo buztinezko lapiko batean zerbitzatu.

5- Urdaiazpikoa erre eta gainean arrultza egosia bota.

Garaiko barazkiak izanez gero, menestra askoz ere goxoagoa izango da.

ATARRAIA

Edaritegia

Pintxo hotz eta beroak

Kaleberria, 11 - ☎ 59 37 38 ANDOAIN

FRANCISCO MENDIKUTE HARATEGIA



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

AURRERA

TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL

Ikasketak

ANDOAIN:

☞ Euskarako klaseak emango nituzke ingeleseko klaseen truke. Deitu telefono honetara: 59 15 24. Ainhoa.

☞ Ingeles ikasketetan diploma-tuak klaseak emango lituzke astean bi aldiz 5.000 pezetetan, banakakoei nahiz taldean. Interesatuak deitu telefono honetara: 42 88 55.

☞ Gitarra jotzen ikasteko klaseak, gitarra klasikoa nahiz elektrikoa, goizez eta arratsalde. ☎ 59 13 24.

ASTEASU:

☞ OHOk klase partikularrak udan eta urte osoan. Deitu telefono honetara: 69 37 02. Mila.

☞ OHOk klase partikularrak emango nituzke. Deitu telefono honetara: 69 16 43. Nekane eta Josune.

☞ OHO, IEE, BBB eta UBiko gairen bat ekainean gaitu ezinda utzi baduzu, irailean gaitu ahal izateko klase partikularrak eskaintzen dizkizut, euskaraz eta erdaraz.

☎ 69 29 75.

Lana

BETERRI:

☞ AIURRI aldizkariak publizitate arduraduna behar du. Honako baldintza hauek eskatzen dira lanposturako: euskalduna izatea, euskara ahozkoa nahiz idatzia ongi menperatzea, 25 urte baino gehiago izatea eta lanpostuari dedikazio osoa eskaintzea. Interesatua egonez gero eta informazio zehatzagoa nahiko bazenu, deitu telefono honetara: 30 07 32.

ANDOAIN:

☞ 21 urteko neska batek goiz eta arratsalde egingo luke lan. Euskara maila ona du, ongizate sozial ikasketak burutu ditu eta hurrekin aritua da, baita hostalaritzan ere. Interesatuak deitu telefono honetara: 59 08 80.

Salerosketak

DONOSTIA:

☞ Apartamentu ederra salgai. Egongela eta logela ederra, sukaldea eta bainugela. Guztia oso ondo banatuta. Interesatuak deitu telefono honetara: 21 43 70.

ASTEASU:

☞ Elefante txikia salgai. Itxura ederrekoa, eta oso esanekoa, lanerako ere trebea. Iñaki.

Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalantzarik izan, hauxe duzu zure txokoa. Eman iezaiguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinaren gainean izango da. Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik egokiena.

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA



ZURE ETORKIZUNA
BIZI ASEGURUA
JOXERRA GARMENDIA MUJICA
MARI JOSE GOENAGA URIARTE

Laskorain kalea, 16 - ☎ 65 18 78 - TOLOSA
Antxin Kalea, 3 behean - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK
EDURNE

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

**Zure
hizpidea**



Zizurkilgo Txisteronekoan ezkututzen den pertsonaia xeblebreari:

AIURRI aldizkariaren azken alean Santa Krutz jaiet buruz azaltzen den eskutitzari erantzun nahiko genioke. Lehenik eta behin, zure informaziorako, Jai Batzordean, auzoko elkarteak, kirol taldeak, kultur taldeak, auzoko jendea eta azaltzen den edozeinek du lekua. Beraz, bilerak irekiak dira eta ez gara inoren tailer kulturalik sentitzen, ez eta gutxiagorik ere.

Otsailean hasi eta maiatzaren bukaera arte astero bildu ohi gara, eta auzoko jendearen iritzia entzun eta gero, HARRO GAUDE aurtengo Santa Kurtzetaz. Azkenengo hamarkadan jende gehien inguratu den urtea dela ere esan genezake. Baina dirudienez Zizurkildik etorri behar zaigu turnozko iluminatua (ez mosketatu zizurkildarrak zeren agian ez da hor bizi) gauzak nola egin behar diren esatera. Nahiz eta batzuek ez ezagutu, garai bateko jaietat ere gogoratzen gara. Ez dugu uste gure errua denik estropadak, Zumea kalean erromeriak eta abarrak orain egiterik ez izatea. Ez dugu uste ere jaiak, hala nola, jendearen ohiturak aldatu izana gure errua denik. Talde desberdinek jaietan barra edo propaganda jarri behar izatea ere ez dugu uste gure errua denik. Gainera Jai Batzordetik talde hauek jaietarako eman duten laguntza eskertu beharrean gaude. Lehen aipatu dugun bezala, orokorrean gure balorazio oso ona izan da; blusak indarrarekin sartu dira aurten, Koadrilen Egunean giroa ezin hobea izan zen, dantzaldietan bildutako jendetza, eta oro har antolatutako ekitaldi guztietan egondako herritarren erantzuna.

Bukatzeko, eskutitz-borroka batean ez dugu sartu nahi. Hurrengo otsailera arte ez gara berriro bilduko. Udan zehar inguruko jaietan ibiliko gara, ondo pasatzen eta ikasten. Baita Zizurkilen ere, bai goikoetan eta baita behekoetan ere. Ez dugu uste Zizurkilgo Txisteronekoarekin topatuko garenik ez batean ez bestean. Azken horri gure gonbitea luzatu nahiko genioke hurrengo urteko otsailean jaiak prestatzen hasterakoan guregana hurbiltzeko. Beraz, xeblebrekeria berrien zain gelditzen gara, baina badakik, otsailean eta zuzenean.

Ordura arte, agur:

Gora Santa Krutzak!!!

Santa Krutzetako Jai Batzordea.

Gogoan har ezazu irakurle, bidali nahi duzun karta edo idatzia, kasu guztietan, zure izena eta bi deiturez eta Nortasun Agiriaren zenbakiarekin lagundu beharko duzula. Era berean, zure helbidea jakinaraz diezaguzu, arren!




MAPFRE

ASEGURUAK

**ERANTZUN ORAIN
ZURE ETORKIZUNARI**

Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
Faxa 30-00-85
ANDOAIN



**JAUNARTZE ETA
EZKONTZETAN
OPARI ETA
BEHERAPEN
UGARI!!**

KALE NAGUSIA, 19 behea
☎ 30 07 27
ANDOAIN

**B
I
K
O
I
T
Z**

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162 ANDOAIN



Kale Nagusia, 19 - ☎ 69 17 11 - BILLABONA



Josu Perales.
Andoain.
Nazioarteko
gaietan aditua.

EUSKAL MAPA BERRIA

Ekainak 12ko Europako hauteskundeetako emaitzek Euskadiko mapa politikoa aldatu dute, aldatzeko joera agertu dute, behinik-behin. Boto estatalistaren igoerak -kontuan hartu beharra dago, Nafarroa barne, Partidu Popularra dela orain nagusi- euskal nazionalismoari batere aldaketa onik ez diola ekarriko adierazten du. Eta are gehiago, kontuan hartuz pertsona askok PNVri bere izaera kontserbadoreagatik ematen diotela botoa, bere izaera abertzaleagatik baino. Egia da, dena den, boto estatalista guztia ez dela berdina. Jende askok, euskal kontzientzia izanik ere, eman dio Ezker Batuari botoa Herri Batasunarekin identifikatuta sentitzen ez delako.

Aitortu beharra dago euskal nazionalismoa une zailak ari dela bizitzen, eta egoera hori hausnarketa sakona ari dela eskatzen. Igandeko emaitzak eskuartean, Iruñea, Gasteiz eta Donostia hiriek Espainiako eskuin alderdirik gogorrenetako alkateak izan zitzaizketen. Egia da Europako hauteskundeetako emaitzak ez direla bere esparrutik atera behar, eta Udal edota Komunitate Autonomoko hauteskondeekin parekatu. Baina zailak beti geratzen da, portzentaiak zenbaitean alda litezke? Eta orain arteko joerak pisu estatalista areagotzen badu? Hau guztia, beraz, ez dago azarearen eskuetan uzterik, era berean, ezin daiteke aldeaz aurretik pentsa euskal nazionalismoa asko indartuko denik.

Hala eta guztiz ere, hauteskunde hauen emaitzek ez dute alderdi guztiengan eragin bera izango, eta ondorioak ere ez dira guztientzat berdinak izango. PNV pozik senti daiteke eskuratu duten boto-kopurua dela eta, Euskal Komunitate Autonomoan lehenengo indarra bilakatu delarik, izan ere, badaki, edozein gobernu autonomotan bere presentzia ziurtatuta dagoela, bere uesteko gobernuak edozein izanda ere. Baina, ikuspegi partidista baztertuz, eta nazio mailako ikuspegi hartuz, badago PNV kezkatu, oso kezkatu, dezakeen zerbait. Hain zuzen ere, EA eta HBren aurkako jarrerak oinarritzat izan duten politiken bitartez eta Euskal Herria independentean oinarritutako egiazko proiektua baztertuz, PNVk berak erraztu du PSOE alderdiaren aurrerapena lehenengo, eta PPrena ondoren. Baina ez dago epe motzean itzaroterik PNVk Euskadin PSOE eta PP alderdiekiko hartzen ari den homologatzeko joerari buruzko autokritikarik egingo duenik, eta hutsala izango litzateke horrelakorik espero izatea. Xabier Arzalluzek uste du gauzak ondo doazkiela, eta ondorioz, uste du Euskadi osoa ere bide onetik doala.

Eusko Alkartasunak froga gogorrenak jasan beharko ditu sortu zenetik. Bere jarraitzaileen artean PNVk gero eta presio handiagoa egingo du dagoeneko batasun zaila duen alderdi honen oreka apurtu asmoz. Garaikoetxea egoerari, nola edo hala, jarkitzen saiatuko da, bere harrotasunaz baliatuz, baina ez du batere lan erraza izango. Bera baita PNVra hurbiltzeko oztopo, ez litzateke harriztekoa izango lehenxeago edo geroxeago bere kargua uztea. Zafantzarik gabe, pisuzko mugimendurik ematen badute, ez da Herri Batasunarekin elkar-ulertzearen norabidean izango; bere norabide posible bakarra PNVruntz baino ez da. Ziur aski, EA hauteskunde autonomikoetara iritsiko da, eta bere azken aukera erabakiorra bizi beharko du, beharbada, Garaikoetxea ez da orduan hautagai izango.

Herri Batasunak jasan duen beherakada handiak -azken hauteskunde orokorretatik berrogei mila boto baino gehiago galdu ditu- norabide aldaketa batera behartzen du talde abertzalea. Ziurra da abstentzioak HB ere zigortu duela; baina azalpen hori ez da nahikoa. Ez da nahikoa, izan ere, HBren berezitasunetako bat izan da beti bere hautesleen botoaren fideltasuna, alegia, boto militantea izan da beti. Ajuria-Eneako ituneko alderdien aurkakotasuna ere ez da nahikoa gertatutakoa azaltzeko; kontrakoa gertatu izan baita horrelakoetan, hau da, tradizioz, HBren jarraitzaileek beren jarrerak are gehigo finkatu eta gogortu dituzte bere aurkako kanpainen aurrean. Beraz, gauzak bere horretan uztea ere ez litzateke nahikoa izango, are aurrerago jo behar da. Ematen du oraingo honetan HBren kanpaina, gainera zetorkiena ikusita, bereziki gogorra izan dela eta kanpainak berak bere hauteslearen zati bat uxatu duela. Baina orain benetako arazoaren muina ETA baino ez da. HBren beherakadak zenbateraino isladatzen du talde armatuaren indarkeriaren aurkako jarrera? Aurrerantzean ere ETArekin ekintzak ez ote dira izango beste botu beherakada baten arrazoi erreala?

HBren baitan hortxe dago eztabaida. Izango dira esaten dutenak hautesleen esparrua ez dela ona eta ENAMi (Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua) ETAK gogor egiten duenenan baino ez zaiola entzuten. Beste batzuek esango dute, ETA, dagoeneko, oztopo baino ez dela indarrak biltzea eskatzen duen estrategia politiko bat aurrera eramateko eta ezin dela beste botu-galtzerik jasan. Batzuek, EAri hurbilduz usteko dute eman ahal izango dela abertzaletasunaren zuzperketa. Beste batzuek esango dute ezkerrean bilatu behar duela HBk batasun esparru berri bat, elkarbiltze berri bat. Hauteskunde autonomikoak bertan daudela kontuan hartuz, hausnarketa sakonak eskatzen dituzten erabakiak azkar hartu beharko dira.

Hauteskundeetako emaitzek ez dute gauza handirik argitzen epe motzean egon daitezkeen bake aukerei buruz. Baliteke ETArekiko indar sozial txikiagoa isladatzen den une hau talde armatuak aintzat ez hartzea eta ekintza militar ugari egiteko prestatzea. Baina baliteke ekintzak jarraitzekotan boto-beherakadak jarrai dezakeela pentsatzea eta onena lehenbailehen irtenbideren bat bilatzea dela. Egoera horren aurrean Elkarrik arazoaren irtenbide politikoa indartuko luketeen ekimenak hartu beharko litzateke, berandu baino lehen.

(Erredakzioan itzulita)

Eskola

-ASTEASU-

Pello Errota ikastetxeko 7. eta 8.eko ikasleak

Luis Mari Zubeldiarekin solasean

Gaur egun punta-puntan dabilen erremontista dugu Luis Mari Zubeldia. Asteasun jaioa orain dela 33 urte, beraz, momentu honetan sasoi onean dago.

Orain dela gutxi Asteasun izan den Kultur Astean omenaldi bat eskaini diote herritarrek.

I- Luis Mari, zenbat urterekin hasi zinen erremontea ikasten?

L- Nahiko berandu. 18 urte nituela hasi nintzen ikasten.

I- Nork bultzatu zintuen ala zure gustoz hasi zinen ikasten?

L- Nire gustoz hasi nintzen ikasten. Hasiera batean eskuz jokatzenuen baina garai hartan erremonteko partiduak ikustera joaten nintzen, herritar batek jokatzenuen baitzuen, Agerrek, hain zuzen ere. Orduan gustatzen hasi zitzaidan eta horrela hasi nintzen ikasten.

I- Zaila ala erraza egin zitzaizun ikastea?

L- Nahiko zaila egin zitzaidan. Pelotako modalitate zailena erremontea da eta lau urtez ibili nintzen ikasten profesioaletara iritsi baino lehen.

I- Herrian bertan ala herritik kanpo hasi zinen ikasten?



Luis Mari Zubeldia

L- Herritik kanpo hasi nintzen. Galaretako frontoian, Hernanin.

I- Ze material behar da erremontean jokatzeko?

L- Pelota, zestoa eta jantzia. Pelota txikia, haria eta larruz egina. Zestoa minbrez egina eta aroa gaztainaz. Gainontzean jantzia, zapatilak...

I- Material horrek zenbat balio du gutxi gorabehera?

L- Askok. Berritan pelotak 13.000 pezeta balio du, zestoak 25.000 eta zestoa lotzeko lokarriak 500. Horiez gain, gainerako jantziak.

I- Ordu asko eman al zenituen ondo jokatzeko ikasteko?

L- Lau urte aritu nintzen astean hiru egunetan entrenatzen eta saio bakoitzak ordu t'erdi gutxi gorabehera irauten zuen.

I- Profesioaletan zenbat urterekin hasi zinen jokatzeko?

L- 22 urterekin.


fotocolor
ERREBELATUA ORDU JEAN

Ezkontza, Jaunartze, e.a.en erreportaiak
Lan Industrialak



José Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro, 1 - ☎ 59 43 32
ANDOAIN

HONTZA BIDEO TALDEA
BIDEO ERREPORTAIK



EZKONTZAK
JAUNARTZEAK
BATAIOAK
OMENALDIK
JAIK
ETA ABAR

☎ 59 33 05
ANDOAIN

ASTIGARRAGA

Bainu gelak Linterneria
Kristaldegia Berogailuak

ERAKUSKETA: Kale Txiki, 11 - ☎ 59 08 61
ANDOAIN

Egin beharra zegoen argazkia elkarrizketatuarekin



L- Beno, nik uste dut edozein kirolletan aritzeko pixka bat sakrifikatu egin behar dela eta, noski, erremon-tean ere bai, dieta zaindu, parranda gutxi egin...

I- Gustatzen al zaizu jarraitzaileak izatea? Zergatik?

L- Bai. Horrek esan nahi du jendea frontoira gustora joaten dela eta aldi berean animatu egiten dute eta giro hobea sortzen da.

I- Noiz eta non debutatu zenuen?

L- 1.983ko urtarrilaren 6an Galarreta frontoian.

I- Orain astean zenbat egunetan entrenatzen duzu?

L- Astean hiru egunetan. Egun bat frontoian eta besteak nire kontu: ariketa fisikoak, korrika...

I- Erremontetik bakarrik ba al dago bizitzerik?

L- Ona bazara, bai.

I- Sari edo txapelketa asko irabazi al dituzu?

L- Profesionaletan txapelketa bat irabazi dut, Huarteko Euskal Jai frontoian.

I- Zein sari edo txapelketa izan da zuretzat garrantzitsuenak?

L- Lehen aipatu dudana txapelketa, Euskal Jaiean irabazitakoa.

I- Sakrifizio handia al da jokalaria profesionala izatea?

I- Gutxi gorabehera zenbat urterekin uzten da kirol hau?

L- Hori erlatiboa da baina urte dexente eman daitezke gorputza ondo baldin badauzkagu, 40 urte inguru arte edo.

I- Erremontea utzitakoan, gustatuko al litzaizuke gazteei erakustea?

L- Bai, asko gainera.

I- Zein aholku emango zenion orain hasten den gazte bati?

L- Batez ere gogoia jartzea eta afizioa edukitzea. Gero denborarekin beste guztia ikasten da.

Luis Mari Zubeldiak profesional munduan hamaika urte eta bost hilabete daramatza jokatzeko. 1.475 partidu jokatu ditu eta ordezko bezala ere partidu askotan hartu du parte.

Beltz
Taberna
KALEBERRIA, 9 ANDOAIN TELE 593549

BENTA
Sagardotegia

Espezialitateak, bakailua tortillan, saltsan eta frijitua, txuleta, kostilla
SORABILLA-ADUNAKO ERREPIDEA
☎ 69 30 94

OGI ZURI
Okindegia
ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32
☎ 69 18 96 ASTEASU

OGI-GOXO
Okindegi eta Gozotegia
EDO BELZTUXEAGOA, BAINO GOXO GOXUA!!

Kale Nagusia, 26
☎ 69 32 94 BILLABONA

Gema
Loradenda
LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK
Kale Nagusia, 5 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA

Pasadizuak

Andoingo kanpandorra

Dorre hori jaso eta eraiki zen 1.767an elizaren batera. Ikusten duzuen bezala, ederra eta dotorea da. Iberotarrek egina, baina badira Gipuzkoan azpeitiarrok egindako dorre gehiago ere Usurbil, Elgoibar eta Andoingo ez gain. 52 metro ditu behetik gora, gurutzearen puntaraino: barrena berriz, berrituta dago, zementu armatuarekin egindako eskaiera eta solairuarekin.

Hara nola izan zen bere berriztapena: 1.928ko otsailean erauntsi ikaragarri bat izan zen, tximista sartu zen, eta barren guztia sutu eta kiskaldu zuen. Nola egurrezkoak ziren barrunbe guztiak eta hagak, horiek erre zirenean erloju eta bi kanpai handiak lurrera erori ziren. Lehenengo erdikoa erori zen eta ondoren bestea gainera etorri eta pitzatu edo hautsi egin zuen. Berrito funditu behar izan zen. Horretarako Iruñeara eraman zuten.

Berritze lanak iraila arte iraun zuten. Roke eta Benito Esnal, Demetrio Usandizaga eta Patxi Eizmendi izan ziren bertako ofizialak. Lanak bukatu zirenean gure kanpai eder hori "tren txikian" ekarri zuten eta izugarritzko ikusmira eta arrakasta sortu zuen. Herri guztia han bildu zen eliz inguruan hura nola jasotzen zuten ikustera. Plazan "klabestante" handi bat jarri zuten, handik kable bat dorreko arku batera, eta han barrenean, erdian, polea bat kablea pasatzeko, eta handik zintzilik igo zuten poliki-poliki. Bere tokian jarri zuten lanak izan ziren baina azkenean ederki kostata baino jarri zuten gure ezkila eder hori dagoen tokian.

Kanpaia Gipuzkoan handiena da. "Aingeruen erregina" du izena. 2.500 kilo ditu, 185 zentimetro izkinatik ertzera, hau da diametroa, 80 kiloko mingaina du eta jai handitan "errepika" jotzen da bi kanpaiekin.

■ Joxe Eizmendi

Bertsotan




Billabonako Zigor Leunda
Andoingo bertso eskola


Billabonako kiroldegia

Udara kasi bidean
ez al dugu nabaria,
eguzkia ageri da
hau ez da tontakeria,
eguzki printzak ageri
eguraldi sargoria,
kezkatxo bat bihotzean
eta hau dek egia,
Billabonako herrian
non botako izerdia,
toki egokirik ez da
nahiz ta bai kategoria,
promesa bagendukan
oraindik ez da geuria,
Alkatea noizko dugu ba
ai!, polikiroldegia.

Aurrekontuak egiten
Udala dugu hasia,
hori entzun dut behinpin
hau egoera gazia,
dirua ez da soberan
ta honek ez du grazia,
hemen ere nabari da
jasaten dugun krisia,
mikatza bezain garratza
gaur egungo dugun bizia,
herriak duen beharrak
itxirik dauka hesia,
arbaso zaharren eran
bete beharko auzia,
auzo-lanean ereindu
kiroldegian hazia.

Doinua: Hoberena





MLARRAMENDI

MANUEL
LARRAMENDI

Kultur
Bazkuna

GUREA
PLAZARATUZ,
BESTEENAZ
ABERASTUZ,


GUREA
INDARTZEKO

||


GAUR, EZ BIHAR!!

ASTEASUN

GIPUZKOAKO SEGALARIEN TXAPELKETARAKO PUNTUAKETA



Iñaki Bengoetxea. (Irun)



Vicente Mitxelena. (Oiartzun)


UZTAILAK 10 EGUERDIKO 12etan

LEKUA: ANDAZARRATE
JATETXEAKO ZELAIAN
(Andazarrateko goian)

ORDUBETEAN BELAR KILO
GEHIEN EBAKITZEN DUENA
IRABAZLE

SARIAK:

1.a	3.a
110.000	90.000
2.a	4.a
100.000	80.000



Jose Antonio Erasquin. (Lasarte)



Jose Gabilondo. (Gaztelu)

SARRERA:

1.000 PEZETA IZANGO DA.
16 URTETIK BEHERAKOENTZAT DOHAINIK.

ANTOLOATZAILEA: ASTEASUKO UDALA

LAGUNTZAILEAK: GIPUZKOAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

ANDAZARRATE JATETXEA

Intxusa Bekoa baserria
Andazarrateko goian

☎ 69 04 42 - ASTEASU

